

# DANTZA-sorkuntzako EMAKUMEEN eta gizonen egoera EAEn

IGOR DE QUADRA  
BELAUSTEGUIGOTIA



KULTURA AUZOLANEAN

**Argitaraldia:** 1.a. 2020ko ekaina

**Ale-kopurua:** 70

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

**Internet:** [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

**Egilea:**

Igor de Quadra Belausteguigotia

**Koordinatzaileak:**

Kualitate Lantaldea, Kultura Sustatzeko Zuzendaritza-Kulturaren Euskal Behatokia

**Itzultzailea:** Amaia Astobiza Uriarte

**Diseinua eta konposizioa:** Mooneki

**Inprimategia:** Eusko Jaurlaritzaren Erreprografia Zerbitzua

**ISBN:** 978-84-457-3547-3

**Lege-gordailua:** LG G 00384-2020

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

**DANTZA**-sorkuntzako  
**EMAKUMEEN** eta  
gizonen egoera EAEn

IGOR DE QUADRA  
BELAUSTEGUIGOTIA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPEN OROKORRA</b>	<b>6</b>
<b>1. OINARRIZKO KONTZEPTUEN AURKEZPENA</b>	<b>8</b>
Dantzaren alorreko sortzaileak	9
Kultura- eta sormen-industriak	9
Dantzaren alorreko sortzaileak kulturaren alorreko langile gisa	9
Balio-katea	10
Genero-ikuspegia	11
<b>2. AZTERKETAREN/TXOSTENAREN EGITURA</b>	<b>12</b>
<b>3. ANALISI KUANTITATIBOA</b>	<b>14</b>
<b>Goi-mailako dantza-prestakuntza EAEn</b>	<b>15</b>
Dantzerti	15
<b>Dantza-prestakuntza profesionalerako laguntzak (foru-aldundiak)</b>	<b>15</b>
Bizkaiko Foru Aldundia	15
Gipuzkoako Foru Aldundia	16
Arabako Foru Aldundia	16
<b>Eusko jaurlaritzak dantzaren alorrean ematen dituen dirulaguntzak</b>	<b>16</b>
Modalitatea: sorkuntza koreografikoa	17
Modalitatea: dantza-ekoizpena	17
Modalitatea: dantza ekoizpenak 1	17
Modalitatea: dantza ekoizpenak 2	17
Modalitatea: konpaniak sendotzea	18

<b>Erresidentzia artistikoak eta dantza-sorkuntza sustatzeko espazioak</b>	<b>18</b>
Sortutakoak, dantzagunean	18
Azala (2016- 2018)	18
La fundición / erresidentzia artistikoak (2016-2018)	19
<b>Dantzaren alorreko mugikortasun-programak eta nazioarteko erresidentziak</b>	<b>19</b>
Etxepare institutua (2016-18)	19
Azkuna zentroa: amphytrion (2016-2018)	19
Regards croises (2016-2018)	20
<b>Sexu-genero sistemaren eragina rol profesioaletan eta dantzaren alorreko sorkuntza-taldeetan</b>	<b>20</b>
Zuzendaritza artistikoa	20
Koreografia	20
Interpretazioa	20
Soinua / musika	21
Eszenografia	21
Jantziak	21
Argiztapena	21
Banaketa	22
<b>Dantzaren alorreko emakume sortzaileen presentzia euskadiko antzoki sarearen (sarea) dantza-programazioan</b>	<b>22</b>
<b>Dantzaren alorreko emakume sortzaileen presentzia euskadiko beste programazio egonko batzuetan</b>	<b>25</b>
Elipsiak /azkuna zentroa alhóndiga	25
La fundición aretoa	25
Dferia	26
Bad bilbao jaialdia	26
<b>4. DANTZARI BURUZKO LITERATURA ETA KRITIKA</b>	<b>28</b>
<b>5. IRITZI-ARTIKULUA</b>	<b>34</b>
<b>6. ELKARRIZKETA KUALITATIBOEI BURUZKO DATU OROKORRAK</b>	<b>46</b>

**AURKEZPEN  
OROKORRA**

## AURKEZPEN OROKORRA

Azterketa hau Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika sailak bultzatu du, eta zenbait artista eta kultura-eragilez osaturiko ikerketa-talde batek egin du. Azterketaren helburua da ezagutzea eta aztertzea zer-nolako presentzia eta parte-hartzea duten emakumeek eta gizonek kulturaren sektore desberdinetan. Txosten honetan, aztertuko dugu zer egoeratan dauden emakumeak dantza-sorkuntzaren balio-katearen urrats desberdinetan (prestakuntza; sorkuntza; ekoizpena; banaketa, programazioa eta erakusketa), ezagutza horren bidez emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko duten ekintzak garatu ahal izateko.

Lehen urratsean, analisi kuantitatiboa egin dugu. Hau da, dantza-sorkuntzarekin loturiko jarduera-esparru desberdinetan emakumeek eta gizonek EAEn bizi duten egoerari buruz eskura dagoen informazio estatistikoa aztertu dugu.

Bigarren urratsean, berriz, analisi kualitatiboa egin dugu. Horretarako, iritzi-artikulu bat landu dugu, dantza-sorkuntzaren alorreko hamahiru profesionali egindako elkarrizketetatik eskuraturiko informazioarekin. Artikulu horretan, profesional horiek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari dagokionez dantza-sorkuntzaren alorrean izan dituzten bizipenak eta helarazi dizkiguten iritziak jaso ditugu.

Azkenik, ekintza zehatz batzuk proposatu ditugu, politika publikoak hobetzeko xedez bildutako ekimen batzuk, EAEn dantza-sorkuntzaren alorrean emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasun agerikoak zuzentzea helburu dutenak.



# 1. OINARRIZKO KONTZEPTUEN AURKEZPENA





## 1. OINARRIZKO KONTZEPTUEN AURKEZPENA

### Dantzaren alorreko sortzaileak

Txosten honetan, “dantzaren alorreko sortzaile” izendatu ditugu EAEn dantzaren alorreko sorkuntza-proiektuak gidatzen dituzten profesionalak (zuzendaritza artistiko eta koreografikoaren roletik hasita). Jarduera profesionala aipatzen dugunean, haren adiera zabala dugu gogoan; izan ere, prestakuntza-garaian eta ondoren eskuraturiko ezagutza askotarikoek eta sorkuntzarekin loturiko ekintzetan jarduteak dakar profesionalizazioa: dantzaren alorreko prestakuntza arautua izatea, irakaskuntzan jardutea, adierazpenezko jarduera bat egitea, sariak jasotzea, akademia edo elkarte artistikoetako kide izatea eta aintzatespena jasotzea esparru akademikotik eta kritikotik, baita komisariotzaren eta/edo antzoki eta kultura-etxeetako programazio artistikoaren aldetik ere.

Dantza-lan bat ekoizteko, “dantzaren alorreko sortzaile” ez gain profesional bezala osaturiko “sortzaile-talde” bat behar da (hainbat esparrutakoak: interpretazioa, argiztapena, soinua, eszenografia, banaketa...). Beraz, sortzaile-talde horiek aztertzen baditugu, jakingo dugu zer presentzia duten emakumeek eta gizonek dantza-sorkuntzarekin zuzenki loturik dauden rol profesional desberdinetan.

### Kultura- eta sormen-industriak

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Sormen Industrien (KSI)<sup>1</sup> sailkapen berrian, dantza kulturaren alorrean kokatu dute, eta, proposamen horren arabera, dantzak eta antzerkiak arte eszenikoen azpisektore bat osatzen dute. Sailkapen berri hori dantzari eragiten dioten kultura-politika berrietan ere islatzen da.

### Dantzaren alorreko sortzaileak kulturaren alorreko langile gisa

Kulturaren produkzio-sistema ondasunak sortzen dituen ekosistema ekonomiko bat da, eta izaera sinboliko eta identitario nabarmena du. Ukiezina eta aldizkakoa denez gero, dantzaren alorreko sortzaileak produkzio-erregimen aldizkako eta prekario batean kokatzen ditu, horrek berekin dakartzalarik autoenplegu-indize handia, ordainsari txikiak, ezegonkortasuna eta afiliazio-tasa txikia herrialde desberdinetako gizarte-segurantzaren sistemetan<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> EAEko KSIn sektoreen zehaztapen kontzeptuala eta definizioa:  
[http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb\\_argit\\_ksi\\_mugaketa\\_2018/es\\_def/adjuntos/Delimitacion\\_ICC\\_\\_EUSKADI.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_ksi_mugaketa_2018/es_def/adjuntos/Delimitacion_ICC__EUSKADI.pdf)

<sup>2</sup> Marta Pérez Ibáñez eta Isidro López Aparicio in Actividades artística y precariedad: La situación económica de los/las artistas en España a partir de un estudio  
[https://gestioneventos.us.es/\\_files/\\_event/\\_16604/\\_editorFiles/file/ACTIVIDAD\\_ART\\_STICA\\_Y\\_PRECARIEDAD\\_8WCEM.pdf](https://gestioneventos.us.es/_files/_event/_16604/_editorFiles/file/ACTIVIDAD_ART_STICA_Y_PRECARIEDAD_8WCEM.pdf)

Gaur egun, Espainiako gobernua, Kongresuko Kultura Batzordeak sustaturiko “Artistaren txostena”<sup>3</sup> dokumentuan oinarriturik, artisten estatus legala arautuko duen lege-multzotzat sortzeko lehen urratsak ematen ari da; beste herrialde batzuetan, ostera, aspalditik dituzte era horretako legeak<sup>4</sup> hala nola Frantzia, Luxenburgon eta Alemanian. Lege horiekin, erregimen propio bat ezarriko litzateke, zeinaren bidez artistek lan-eskubideak eta gizarte-babeserako mekanismoak eskuratu ahal izango litzaketen eta sindikatuak<sup>5</sup>. eratzeko modua izango luketen. Horretarako, eta “Artistaren txostena” dokumentuan jasota dagoen bezala, “artista” lanbidea birdefinitu behar litzateke (hainbat kontzeptu argitu behar lirateke: autorea, sortzailea, interpretea, etab.), jarduera artistikoak zehaztu eta arautu behar lirateke (arteekin loturiko lanbideak ordenatu behar lirateke, eta obra edo ikuskizun artistiko baten ekoizpenean parte hartzen duten jarduera tekniko eta osagarriak ere sartu behar lirateke) eta Gizarte Segurantzaren afiliatzeko sistema arautu behar litzateke –kontuan harturik lanaren aldizkakotasuna eta diru-sarreraren irregulartasuna–, artistei erretiro duin bat bermatzeko.

Genero-ikuspegia aintzat harturik, eta arte eszenikoetan emakumeek eta gizonak dauzkaten lan-baldintzei dagokienez, “Artistaren Estatutua” esparru-dokumentuan<sup>6</sup> exijentzia hauek daude zehazturik: a) zenbait alorretan indarrean dagoen araudia aldatzea –hala nola amatasunaren babesa eta haurdunaldiko arriskuak, ez delako nahikoa eta diskriminatzailea delako–, amatasun-prestazioa bermatu dezan eta amatasun-prestazioa eta lanaldi partzialeko lana bateratzeko aukera eman dezan; b) haurdunaldian arriskua izateari dagokion prestazioa lan-prestazio guztiz pertsonala eta kualifikatua duten lanbide guztietara zabaltzea –dantzaria, aktorea, etab.–; c) aita edo ama altaren edo kotizazio-egun teorikoen egoera asimilatuan aurkitzen denean, aukera izan

behar du egun asimilatu horiek amatasun- edo aitatasun-prestazioa eragin duen gertaera jazo den unean kokatzeko, lortutako egunak urtearen hilabete guztietan proportzionalki banatu gabe, hilaren lehenengo egunetik; d) emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzea sorkuntzaren eta ekoizpen artistiko eta intelektualaren alorrean.

## Balio-katea

“Kultura-sektore” horiek guztiek ezaugarri bat dute komunean: “balio-kate”<sup>7</sup> gisa daude antolatuz, edo ekoizpen-prozesuan balioa eranstean duten etapa berezien multzo gisa. Hortaz, “balio-kate” hori bi modutara uler daiteke: alde batetik, balio ekonomikoa sortzen du; bestetik, kultura-balioak mobilizatzen ditu kultura-sorkuntzaren ekoizpen, banaketa eta zabalkundean parte hartzen duten eragile ugarien arteko interakzioan, baita kultura eskuratzeko herritarren eskubidearen bitartekaritzan eta bideraketan ere.

Hain zuzen ere, arteetako kultura-sorkuntzaren sektoreak dimentsio kultural eta berritzailea du (lan egiten du forma, material eta hizkuntzekin, eta sortzen ditu esanahi, kontakizun, emankizun, gailu, espazio sinboliko eta subjektibitate berriak)<sup>8</sup>, eta, horregatik, merkatuaren bazterretan kokatzeko joera du. Horren ondorioz, inbertsio publiko gehiago behar ditu bere jarduerari eusteko<sup>9</sup>.

<sup>3</sup> “La Comisión de Cultura (en junio de 2018), y después el pleno del Congreso (en septiembre de ese mismo año), aprobaron el informe del Estatuto, compuesto por 75 puntos y más de 60 medidas para luchar contra la precariedad específica de los trabajos culturales y para hacer sostenible nuestro ecosistema cultural”. In Eduardo Maura, Estatuto del artista. <https://cxtx.es/es/20190327/Firmas/25239/Eduardo-Maura-estatuto-del-artista-agenda-precariadad-sostenibilidad-cultura.htm>

<sup>4</sup> EBko sorkuntza artistikoko profesionalak. Sorkuntza artistikoko profesionalen egoera sozioekonomikoa hobetzeko Europako Batasuneko herrialdeetan ezarritako neurri berritzaileak, batez ere, lan-harremanei, gizarte segurantzari eta zerga-sistemari buruzkoak. [http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r/46-20323/es/contenidos/informacion/brev2\\_0707/es\\_brev2/brev2.html](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r/46-20323/es/contenidos/informacion/brev2_0707/es_brev2/brev2.html)

<sup>5</sup> XJornada Estatuto del Bailarín (2017). [http://feced.org/wp-content/uploads/2017/07/Ponencia\\_FECED-Estatuto-del-bailar%C3%ADn.pdf](http://feced.org/wp-content/uploads/2017/07/Ponencia_FECED-Estatuto-del-bailar%C3%ADn.pdf)

<sup>6</sup> [https://s3.amazonaws.com/fundacion-sgae/Documento\\_marco\\_estatuto\\_del\\_artista\\_autor\\_creador\\_trabajador\\_de\\_la\\_cultura\\_julio\\_17.pdf](https://s3.amazonaws.com/fundacion-sgae/Documento_marco_estatuto_del_artista_autor_creador_trabajador_de_la_cultura_julio_17.pdf)

<sup>7</sup> Hauek dira balio-katearen funtzioak: sorkuntza; ekoizpena, edizioa; banaketa, salmenta eta zabalkundea; zaintza; hezkuntza; kudeaketa eta araudia.

<sup>8</sup> Ricardo Antón Troyas eta Roberto Gómez de la Iglesia. Kultursistema. Kultura eta sormen ekosistemak interpretatu eta mapatzeko matrizea.

<sup>9</sup> “(...) el Estado tiene la obligación de proteger la actividad cultural para impedir que los agentes sociales más influyentes (como las multinacionales) determinen los contenidos de la cultura de una comunidad debido a su carga simbólica e identitaria, (...) pero el Estado también tiene que evitar una injerencia improcedente en los contenidos de las prácticas culturales de los ciudadanos.” Estudio sobre la situación de las Artes Escénicas en España (2016). Colección Libros de la Academia.

## Genero-ikuspegia

Genero-ikuspegiaren bidez,<sup>10</sup> emakumeen eta gizonen ezaugarriak zehatz identifikatu, aztertu eta uler daitezke, kontuan harturik historikoki gizonei eta emakumeei esleitu zaizkien rolak eta generoari esleituriko funtzioak. Ikuspegi hori aintzat harturik, batzuen eta besteen bizi-aukerak aztertzen dira, haien bizitzen zentzua, haien itzaropenak eta aukerak, aztertzen dira, halaber, sexuen arteko gizarre-harreman konplexuak –gizarreak haiengandik espero duenak baldintzaturik daudenak–, baita emakumeek eta gizonek aurre egin beharreko gatazka instituzionalak eta egunerokoak ere, eta horretarako darabiltzaten modu askotarikoak.

Txosten hau genero-ikuspegiarekin landu da, bizitzako zailtasunei aurre egiteko eta dantza-sorkuntzaren alorrean nor bere helburuak betetzeko garaian EAEko emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak modu kuantitatibo eta kualitatiboan azaleratzeko.



<sup>10</sup> *“La Perspectiva de Género, llamada también enfoque de género, se basa en la Teoría de Género y se inscribe en tres paradigmas: el paradigma teórico histórico-crítico, el paradigma cultural del feminismo y el paradigma del desarrollo humano. El fundamento de la Teoría de Género es crítico, la índole de los enfoques que genera es crítica, y le es imprescindible la crítica de la modernidad. Todo ello ubica a la Teoría de Género en las corrientes democratizadoras postmodernas, comprendidas en el horizonte histórico-cultural de la modernidad misma, que no se ha clausurado.”* Lagarde, Marcela, “El género”, fragmento literal: ‘La perspectiva de género’, en *Género y feminismo. Desarrollo humano y democracia*, Ed. horas y HORAS, España, 1996, pp. 13-38. [http://www.europofem.org/contri/2\\_05\\_es/cazes/03\\_cazes.html](http://www.europofem.org/contri/2_05_es/cazes/03_cazes.html)



## **2. AZTERKETAREN/ TXOSTENAREN EGITURA**


## 2. AZTERKETAREN/TXOSTENAREN EGITURA

Txosten honetan jasotako analisi kuantitatiboa egiteko, dantza-sorkuntzaren balio-katearen alor desberdinetako datu estatistikoak erabili ditugu, guztiak ere 2016-2018 bitartekoak: prestakuntza; erresidentzietan ikerketak egiteko laguntzak; ekoizpenerako laguntzak; programazioa; lantalde profesionalak.

Ondoren, hausnarketa bat egin dugu, "iritzi-artikulu" gisa aurkezturik, 13 sortzailerik egindako elkarrizketetan lorturiko

informazioan oinarriturik. Hain zuzen ere, EAEn emakumeek eta gizonek dantza-sorkuntzaren testuinguruan bizi duten egoerari buruz galdetu diegu.

Azkenik, proposamen eta iradokizun batzuk jaso ditugu, txosten hau egiteko bildutako datu kuantitatibo eta kualitatiboen azterketaren eta interpretazioaren ondorio direnak.



# **3. ANALISI KUANTITATIBOA**

### 3. ANALISI KUANTITATIBOA

#### GOI-MAILAKO DANTZA-PRESTAKUNTZA EAEN

Oraintsu arte, EAEn ez da eskaini dantza garaikideko prestakuntza profesional publiko ofizialik. Horren faltan, eskola pribatuek, prestakuntza-tailerrek eta ikastaro trinkoek osaturiko sare bat egon da, maiz sektore profesionalak berak bideratua, laguntza publikoarekin. Hori dela-eta, urteek aurrera egin ahala prestakuntza-diaspora bat sortu da, eta, ondorioz, gaur egun EAEn dantzaren alorreko sorkuntzan diharduten profesional gehienek estatuko beste leku batzuetan eta atzerrian garatu dute beren goi-mailako prestakuntza akademiko eta profesionala.

Duela gutxi, 2015ean, DANTZERTI sortu zen, Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskola. Horri esker, gure lurralde kulturalari dagozkion datuak behatzen eta aztertzen has gaitezke, zeinek islatzen baitute emakume eta gizon profesionalen ibilbidea, prestakuntzaren lehen urratsetatik hasita. Era berean, horrek guztiak EAEko dantzaren balio-katean duen inpaktua ere beha eta azter dezakegu.

#### Dantzerti

Gaur egun, Dantzerti da EAEn dantzaren alorreko goi-mailako titulu bat eskaintzen duen ikastetxe bakarra. Dantzertiren azken urteetako datuak hartuz gero (2016-2018 bitartekoak), ikusiko dugu emakumeen portzentajea gizonena baino askoz handiagoa dela.

#### *Dantzerti (2016-2018)*

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 80	% 20%	% 82	% 18	% 84	% 16
Guztira	16	4	18	4	21	4

#### DANTZA-PRESTAKUNTZA PROFESIONALERAKO LAGUNTZAK (FORU-ALDUNDIAK)

Dantzaren alorreko profesionalizaziorako instituzioek ematen dituzten laguntzen artean, nabarmentzekoak dira foru-aldundiek dantzari eta koreografo gazteei (16-30 urte bitartekoei) eskaintzen dizkieten laguntzak EAEko eta EAETik kanpoko eskoletan ikasten jarraitzeko. 2016-2018 bitartean, emakumeak izan ziren nagusi Bizkaiko Foru Aldundiak (% 79) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (% 63) emandako dirulaguntzetan, eta gutxienak Arabako Foru Aldundian (% 33), non banatutako dirulaguntzen kopurua askoz txikiagoak izan baitzen. Laguntzen oinarrietan ez da zehazten emakumeen eta gizonen ordezkartza parekiderako kuotarik.

#### Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundiak modalitate hauetako beka-deialdien barruan sartzen ditu dantzaren alorrerako laguntzak: arte plastikoak eta ikusizkoak, arte dramatikoa, musika, dantza eta kulturaren kudeaketa. Azken hiru urteetan, dirulaguntza horien jasotzaileen artean emakumeak dira nagusi; halere, ikusten da proportzionalki gero eta gizon gehiago dagoela jasotzaileen artean, eta gero eta emakume gutxiago.

#### *Bizkaiko Foru Aldundia (2016-2018)*

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 89	% 11	% 74	% 26	% 80	% 20
Guztira	8	1	14	5	20	5

### Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiak modalitate hauetako beka-deialdien barruan sartzen ditu dantzaren alorrerako laguntzak: musika, dantza, arte dramatikoa, ikusizko arteak, erakusketen komisariotza, moda eta diseinua, eta arkitektura. Azken hiru urteetan, dirulaguntza horien jasotzaileen artean emakumeak dira nagusi; halere, ikusten da proportzionalki gero eta gizon gehiago dagoela jasotzaileen artean, eta gero eta emakume gutxiago.

#### Gipuzkoako Foru Aldundia (2016-2018)

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 75	% 25	% 60	% 40	% 60	% 40
Guztira	3	1	3	2	3	2

### Arabako Foru Aldundia

Arabako Foru Aldundiak beka bakar bat eskaintzen du dantzaren alorrean, eta beka hori arte eszeniko eta musikalen prestakuntza-ekintzei zuzendutako laguntza publikoaren deialdiaren barruan sartzen da. Azken hiru urteetan, dirulaguntza horien jasotzaileen artean gizonak dira nagusi.

#### Arabako Foru Aldundia (2016-2018)

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 100	% 0	% 0	% 100	% 0	% 100
Guztira	1	0	0	1	0	1

Hiru Foru Aldundiak kontuan hartuta, 2016-2018 bitartean dirulaguntzak jaso dituzten pertsonen artean emakumeak dira nagusi. Halere, gero eta gizon gehiago dago dirulaguntzen jasotzaileen artean.

#### Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako foru-aldundiak(2016-2018)

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 86	% 14	% 68	% 32	% 74	% 26
Guztira	12	2	17	8	23	8

### EUSKO JAURLARITZAK DANTZAREN ALORREAN EMATEN DITUEN DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak dantza sustatzeko ematen dituen dirulaguntzen xedea da Euskadin lan egiten duten koreografoen eta konpainien sorkuntza-lana sustatzea eta, ahal den neurrian, sektore hori profesionalizatzen laguntzea.

Dirulaguntza horiek Balorazio Batzordeek baloratzen dituzte, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.7 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Dirulaguntza publiko horiek ekoizpen-proiektuen % 70 laguntzera heltzen dira, eta dantza-konpainien finantzazio totalaren % 33,7 osatzen dute (konpainien autofinantzazioa % 61,2koa da, eta gainerako diru-sarrerak –batez ere, babesak edo koprodukzioak– egonkorak dira: guztizkoaren % 5 inguru) <sup>11</sup>.

Dirulaguntza horiek dantza-sorkuntza bultzatzeko modalitate desberdinetan banatuta daude. Azkenaldian aldaketak egon badira ere, hauek dira 2016-2018 bitartean indarrean egon ziren modalitateak:

11 (8. or.) Arte eszenikoetako ekoizleak (2010) in Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma



**Modalitatea: sorkuntza koreografikoa**

Modalitate honen helburu nagusia izan da iraupen laburreko lehen koreografia-sorkuntzak eta esperimentazio-prozesu txikiak sustatzea. Beka honekin batera, Eusko Jaurlaritzak Dantzari Bilaka sustatu du azken urteetan; programa horren bidez, akonpainamendua, jarraipena eta sorkuntza-lana jendaurrean erakusteko aukera eskaintzen zaie beka jaso duten koreografoei, dantza-sorkuntzan diharduten hainbat lagunek osaturiko batzorde batek koordinaturik. 2017tik aurrera, Dantzari Bilaka programaren koordinatzailea ADDE elkarte (Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte) izan da. 2016-2018 bitartean, emakumeak buru dituzten proiektuen kopurua gizonak buru dituztenena baino aski handiagoa izan da.

**Sorkuntza koreografikoa (2016-2018)**

2016		2017		2018	
E	G	E	G	E	G
% 67	% 33	% 43	% 57	% 67	% 33
Guztira 6	3	3	4	6	3

**Modalitatea: dantza-ekoizpena**

Modalitate hau 2016ra arte egon zen indarrean, eta dantza-ekoizpen profesionalak sustatzea zuen helburu. 2016an, emakumeak buru izan zituzten proiektuen kopurua gizonak buru izan zituztenena baino aski txikiagoa izan zen.

**Dantza-ekoizpena / Producción en Danza (2016)**

2016	
EMAKUMEAK	GIZONAK
% 42	% 58
Guztira 5	7

**Modalitatea: Dantza Ekoizpenak 1**

2017tik aurrera, "dantza-lanen ekoizpena" izeneko modalitatea bi kategoriatan bereizi zen: "Dantza-ekoizpenak 1" (formatu txiki-ertaina) eta "Dantza-ekoizpenak 2" (formatu ertain-handia). "Dantza-ekoizpenak 1" kategorian era honetako lanak sustatzen dira: talde txikien obrak (kide bakarrekoak, bikoak...); obra laburrak edo iraupen ez oso luzekoak, bereziki zuzenduak daudenak ikerketara eta/edo esperimentazio koreografikora eta/edo eszenikora; lehen proiektu profesionalak. 2017-2018 bitartean, emakumeek gidaturiko proiektuen kopurua gizonen gidaturikoena baino dezente handiagoa izan da.

**Dantza-ekoizpenak 1 (2017-2018)**

2017		2018	
E	G	E	G
%67	% 33	% 71	% 29
Guztira 6	3	5	2

**Modalitatea: Dantza Ekoizpenak 2**

Modalitate honetan formatu handiagoko obrak sustatzen dira, hau da, iraupen ertain edo luzekoak, eta/edo koproduzioak dauzkan proiektu baten parte direnak. 2017-2018 bitartean, emakumeek gidaturiko proiektuen kopurua gizonen gidaturikoena baino dezente txikiagoa izan da.

**Dantza-ekoizpenak 2 (2017-2018)**

2017		2018	
E	G	E	G
% 54	% 46	% 30	% 70
Guztira 7	6	3	7

### Modalitatea: Konpaniak sendotzea

Modalitate honek dantza-konpainien egonkortasuna bultzatzea izan du helburu, eta, horretarako, esparru hauekin lotura duten jarduerak sustatu ditu: koordinazioa eta laguntza administratiboa; ekoizpenen banaketa eta komertzializazioa; eta konpainiaren jarduera paraleloak (etengabeko prestakuntza, dantzarekiko sentsibilizazioa, mediazioa publikoekin).

2017-2018 bitartean, emakumeek eta gizonek gidaturiko proiektuen kopuruek orekarako joera izan dute.

#### Konpaniak sendotzea (2016-2018)

2016		2017		2018		
E	G	E	G	E	G	
% 50	% 50	% 50	% 50	% 63	% 38	
Guztira	2	2	3	3	5	3

### ERRESIDENTZIA ARTISTIKOAK ETA DANTZA-SORKUNTZA SUSTATZEKO ESPAZIOAK

Kultura-egitura batzuek erresidentzia artistikoak eskaintzen dituzte dantzaren alorreko sorkuntza-prozesuaren hainbat fase sustatzeko, hala nola kontzeptualizazioa, ideigintza eta esperimendazioa. Hurrengo lerroetan, EAeko espaziorik egonkorrenak aztertuko ditugu.

#### Sortutakoak, Dantzagunean

Sortutakoak <sup>12</sup> programa 2011n abiatu zen. Erreterian (Gipuzkoa) kokatuta dagoen Dantzagunea zentroko espazio bat da, eta dantza-proiektu berrien sorrera, garapena eta

banaketa sustatzea du xede. Erresidentzia-egonaldi bat eta proiektuaren aurkezpena eskaintzen ditu, eta laguntzak hiru modalitatetan banatuta daude: tradizionala, sorkuntza garaikidea eta mediazioa. 2016-2018 bitartean, emakumeek gidaturiko proiektuen kopurua handituz joan da, gizonen gidaturiko proiektuen kopuru bera izatera iritsi arte.

#### Sortutakoak / sorkuntza garaikidearen modalitatea (2016-2018)

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 33	% 67	% 50	% 50	% 50	% 50
Guztira	1	2	2	2	1	1

Azala <sup>13</sup> guneak ere erresidentzia-egonaldiak eskaintzen ditu, sorkuntza- eta/edo ikerketa-prozesu batean kontzentrazio-rako espazioa eta denbora behar duten artista, sortzaile, pentsalari eta ekintzaileei zuzenduak. 2016-2018 bitartean, emakumeek gidaturiko proiektuen kopurua gizonen gidaturikoena baino handiagoa izan da.

#### Azala (2016-2018)

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 60	% 40	% 78	% 22	% 69	% 31
Guztira	34	23	21	6	25	11

<sup>12</sup> "Sortutakoak: Dantzagunea zentroan eskaintzen diren programa ugarietako bat, helburu duena dantza-sortzaileei laguntzea. <http://dantzagunea.gipuzkoakultura.net/index.php/es/convocatorias>

<sup>13</sup> [http://www.azala.es/es/anoario/pagina\\_1/2018/espaciocreacion\\_archivo\\_anuario.html](http://www.azala.es/es/anoario/pagina_1/2018/espaciocreacion_archivo_anuario.html)

**La Fundación / Erresidentzia artistikoak (2016-2018)**

La Fundación<sup>14</sup> Baliabide Zentroak eskaintzen dituen erresidentzia artistikoak ikerketara, sorkuntzara eta ekoizpenera zuzenduta daude. 2016-2018 bitartean, emakumeek gidaturiko proiektuen kopurua gizonek gidaturikoena baino handiagoa izan da; era berean, gizonek gidaturiko proiektuen kopuruak gora egin du progresiboki.

**La Fundación / Erresidentzia artistikoak (2016-2018)**

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 82	% 18	% 73	% 27	% 47	% 53
Total	9	2	11	4	7	8

**DANTZAREN ALORREKO MUGIKORTASUN-PROGRAMAK ETA NAZIOARTEKO ERRESIDENTZIAK**

EAERI dagokionez, dantza-sorkuntzaren esparruan eskaintzen diren mugikortasun-programen eta nazioarteko trukeen artean, hauek dira ekimen aipagarrienak.

**Ettxepare Institutua (2016-18)**

Ettxepare Institutuak<sup>15</sup> dirulaguntza bat eskaintzen du dantza-ren esparruko euskal sortzaileak euskararen lurralde-eremutik kanpora mugitu daitezzen. 2016-2018 bitartean, emakumeek gidaturiko proiektuen kopurua eta gizonek gidaturikoena paretsu ibili dira.

**Ettxepare Institutua / mugikortasunerako dirulaguntza (2016-2018)**

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 53	% 47	% 45	% 55	% 55	% 45
Guztira	8	7	5	6	6	5

**Azkuna Zentroa: Amphytrion (2016-2018)**

Azkuna Zentroak<sup>16</sup> eskaintzen duen Nazioarteko Erresidentzia Artistikoak Amphytrion izena du. Proiektu artistikoak garatzeko baliabideak eta espazioa eskaintzen dizkie sortzaileei, eta gertuko sortzaileen sarea nazioarteko ingurune kulturalekin harremanetan jartzen du. 2016-2018 bitartean, emakumeek gidaturiko proiektuen kopurua gizonek gidaturikoena baino handiagoa izan da.

**Azkuna Zentroa Alhóndiga / Amphytrion (2016-2018)**

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 100	% 0	% 100	% 0	% 0	% 100
Guztira	1	0	1	0	0	1

<sup>14</sup> <https://www.lafundicion.org/urtekaria/?lang=eu>

<sup>15</sup> <https://www.ettxepare.eus/eu>

<sup>16</sup> [https://www.azkunazentroa.eus/az/cast/inicio/agenda-4/residencias-artisticas-2019/al\\_evento\\_fa](https://www.azkunazentroa.eus/az/cast/inicio/agenda-4/residencias-artisticas-2019/al_evento_fa)

### Regards Croises (2016-2018)

Truke-proiektu honen sustatzaileen artean bi eragile daude: Bilboko La Fundición gunea eta Le laboratoire de recherche chorégraphique sans frontières du MALANDAIN BALLET BIARRITZ. Ipar eta Hego Euskal Herriko artisten ezagutza, mugikortasuna eta lan globalaren ikusgaitasuna sustatzea du helburu. 2016-2018 bitartean, emakumeek gidaturiko proiektuen kopuruaren proportzioa gero eta handiagoa izan da.

#### Regards Croises (2016-2018)

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 50	% 50	% 75	% 25	% 100	% 0
Guztira	2	2	3	1	1	0

### SEXU-GENERO SISTEMAREN ERAGINA ROL PROFESIO-NALETAN ETA DANTZAREN ALORREKO SORKUNTZA-TALDEETAN

Kasu gehienetan, dantzaren alorreko sorkuntza profil artistiko eta tekniko desberdineko zenbait pertsonaren lankidetzaren emaitza izaten da, eta elkarlanean egindako lan hori ekoizpen koreografikoen fitxa artistikoetan jasotzen da. Era berean, fitxa artistiko horiek ADDE elkartearen urteroko katalogoetan biltzen dira. Bada, 2016-2018 bitartean bildutako obra koreografikoen fitxak aztertzen baditugu, ekipo artistikoaren rol desberdinetan emakumeek eta gizonak izan duten presentzia behatu ahal izango dugu.

#### Zuzendaritza artistikoa

Dantza-lanen ekoizpenean, zuzendaritza artistikoaz arduratzen den pertsona lan koreografikoaz eta lan dramaturgikoaz ere arduratu ohi da askotan. 2016-2018 bitartean, emakumeek zuzendaritza artistikoan izan duten presentzia gizonak izan dutena baino handiagoa izan da.

#### Zuzendaritza artistikoa (2016-2018)

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 63	% 38	% 54	% 46	% 63	% 38
Guztira	15	9	13	11	5	3

#### Koreografia

Lan koreografikoaren zeregin nagusia da gorputzek antzezlekuan hartzen duten formaz, estiloaz eta konposizioaz arduratzea. Askotan, koreografiaz arduratzen den pertsona zuzendaritza artistiko eta dramaturgikoaz ere arduratzen da. 2016-2018 bitartean, emakumeek lan koreografikoan izan duten presentzia gizonak izan dutenaren parekoa izan da.

#### Koreografia (2016-2018)

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 58	% 42	% 48	% 52	% 55	% 45
Guztira	19	14	15	16	6	5

#### Interpretazioa

Interpretazio-lana egiten dutenek sorkuntza-lana ere egiten dute maiz, zuzendaritza artistikoaz arduratzen den pertsonarekin batera. Interprete-kopurua aldatu egiten da, kontzeptu artistikoaren eta ekoizpenerako baliabideen arabera. 2016-2018 bitartean, emakumeek interpretazioan izan duten presentziak beheranzko joera izan du gizonen presentziarekin alderatuz gero, eta gizonenak, berriz, gora egin du etengabe.

*Interpretazioa (2016-2018)*

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 64	% 36	% 52	% 48	% 43	% 57
Guztira	49	28	38	35	6	8

**Soinua / Musika**

Dantzaren alorreko ekoizpenetan, musikarekin eta soinuarekin loturiko lanak egiteko bi aukera izaten dira: profesionalek emanaldian zuzenean parte hartzea edo alde zurretik grabaturiko musika erabiltzea, hirugarrenek sortua.

Gure laginean, kopurua eta adierazgarritasun estatistikoa txikiak badira ere, musika orijinala sortzen duten eta dantza-ekoizpenaren sorkuntza-taldeko kide diren pertsona fisikoak bakarrik hartu ditugu kontuan. 2016-2018 bitartean, emakumeek soinuan eta musikan izan duten presentziak joera gorakorra izan du, gutxiagotasun-egoera batetik abiatu bazen ere.

*Soinua / Musika (2016-2018)*

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 17	% 83	% 22	% 78	% 67	% 33
Guztira	1	5	2	7	2	1

**Eszenografia**

Eszenografia espazio eszenikoaren kontzeptualizazioaz, diseinuaz eta eraikuntzaz arduratzen da. 2016-2018 bitartean,

emakumeek eszenografian izan duten presentzia gizonen izan dutenaren parekoa izan da.

*Eszenografia (2016-2018)*

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 50	% 50	% 40	% 60	% 50	% 50
Guztira	2	2	2	3	1	1

**Jantziak**

Jantzietan diharduten langileak interpreteen arropen kontzeptualizazioaz, diseinuaz eta eraikuntzaz arduratzen dira. 2016-2018 bitartean, emakumeek zuzendaritza artistikoa izan duten presentzia gizonena baino handiagoa izan da urte guztietan.

*Jantziak (2016-2018)*

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 75	% 25	% 75	% 25	% 75	% 25
Guztira	6	2	3	1	3	1

**Argiztapena**

Argiztapena antzezlekuaren argi-espazioaren kontzeptualizazioaz, diseinuaz eta eraikuntzaz arduratzen da. 2016-2018 bitartean, emakumeek argiztapenean izan duten presentzia gizonen izan dutena baino txikiagoa izan da urte guztietan.

**Argiztapena (2016-2018)**

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 13	% 88	% 13	% 87	% 20	% 80
Guztira	2	14	2	13	1	4

**Banaketa**

Banaketan diharduten langileak dantza-obra ezagutarazteaz eta komunikazioaz arduratzen dira; halaber, haien ardura da ekoizpena antzokietan, festibaletan eta azoketan saltzea. 2016-2018 bitartean, emakumeek banaketan izan duten presentzia gizonen antzokietan baino askoz handiagoa izan da urte guztietan.

**Banaketa (2016-2018)**

	2016		2017		2018	
	E	G	E	G	E	G
	% 79	% 21	% 81	% 19	% 83	% 17
Guztira	11	3	13	3	5	1

Orain arte bildutako datuen arabera, agerikoa da dantzaren alorreko sorkuntza-taldeari dagozkion rol desberdinetan emakumeen eta gizonen artean dagoen desoreka. Zuzendaritza artistikoan eta koreografian gehiago txiki bat badago ere, gehiago hori txikitu egiten da interprete-roletan, non emakumeen eta gizonen presentziak orekarako joera duen. Azkenik, badira rol batzuk non gizonetzkoak diren nagusi (argiztapena, soinua) eta beste batzuk non emakumezkoak diren nagusi (jantziak, banaketa).

**DANTZAREN ALORREKO EMAKUME SORTZAILEEN PRESENTZIA EUSKADIKO ANTZOKI SAREAREN (SAREA) DANTZA-PROGRAMAZIOAN**

Sarea 1993an sortu zen, zenbait instituzioren eskutik: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Foru Aldundietako kultura-sailak eta sarea osatzen duten antzoki eta aretoen titular diren udalak. EAeko hiru hiriburuetako hainbat antzoki eta areto hartzen ditu barnean, baita erkidego guztiko 48 udalerritakoak ere; gaur egun, 61 antzoki eta areto daude Sarearen barruan. Programazioarekin loturiko lanpostuetan, emakumeen presentzia % 48,82koa<sup>17</sup> da, eta gizonena, berriz, % 55,17koa.

Sarearen eskaintza totalaren % 11<sup>18</sup> dantzak betetzen du, 239 funtzioekin.

Publikoen kontsumo-ohituren neurketari dagokionez, 2017ko urteko txostenean bi kategoria bereizten dira: haurrak eta gazteak/helduak. Publikoaren parterik handiena emakumeek osatzen dutela hautematen bada ere, datuak ez dira biltzen sexuaren arabera bereizirik, eta, beraz, gaur gaurkoz ezinezkoa da emakumeen eta gizonen presentzia kuantitatiboa ezagutzea.

Sarearen programazioaren barruan dantza-ekoizpenek 2018an<sup>19</sup> izandako tokiari buruzko datu gutxi daude. Halere, emakumeek eta gizonen gidaturiko proiektuei dagokienez, programazioetan erabiltzen diren "dantza-genero"ei loturiko joera bat ikusten da.

Dantza tradizionala:

**Dantza tradizionala (2018)**

	2018	
	EMAKUMEAK	GIZONAK
	% 0	% 100
Pertsonak	0	8

<sup>17</sup> "Programatzaileak 2019" zerrenda, Sarearen bulegoak eskainia.

<sup>18</sup> "SAREA\_Txosten\_Estatistikoa\_2017"; gaur gaurkoz, Sareak argitaraturiko azken memoria

<sup>19</sup> Jemima Canok emandako datuetatik.

*Dantza garaikidea (2018)*

	2018	
	EMAKUMEAK	GIZONAK
	% 54	% 46
Pertsonak	15	13

*Performancea (2018)*

	2018	
	EMAKUMEAK	GIZONAK
	% 0	% 100
Pertsonak	0	1

*Antzerki dantzak (2018)*

	2018	
	EMAKUMEAK	GIZONAK
	% 67	% 33
Pertsonak	2	1

*Hiri-dantza (2018)*

	2018	
	EMAKUMEAK	GIZONAK
	% 0	% 100
Pertsonak	0	1

*Familia-dantza (2018)*

	2018	
	EMAKUMEAK	GIZONAK
	% 71	% 29
Pertsonak	5	2

*Zirku-dantza (2018)*

	2018	
	EMAKUMEAK	GIZONAK
	% 100	% 0
Pertsonak	1	0

*Fusioa (2018)*

	2018	
	EMAKUMEAK	GIZONAK
	% 67	% 33
Pertsonak	2	1

Datu urri horiek bakarrik dira 2018ekoak; halere, programaturiko "dantza-genero"aren arabera sexu-banaketa baterako joera dagoela erakusten dute: dantza tradizionalen eta hiri-dantzan, gizonek gidaturiko konpainiak dira nagusi; zirku-dantzan, familia-dantzan eta fusioan, ostera, nabarmen handiagoa da emakumeek gidaturiko konpainien kopurua.

Sarean 2018an programaturiko dantza-ekoizpen guztien datuek erakusten dute plano profesionalean gizonak gidaturiko konpainien proportzioa emakumeek gidaturikoena baino apur bat handiagoa dela.

### Programazioa, guztira (2018)

		2018	
		EMAKUMEAK	GIZONAK
		% 48	% 52
Pertsonak		26	28

Bestalde, Sarean 2018an programaturiko dantza-ekoizpenen "emanaldi" guztien datuak aztertzen baditugu, ikusten dugu emakumeek gidaturiko proiektuen emanaldi-kopurua % 48tik % 45era jaisten dela eta gizonak gidaturiko proiektuena, aldiz, % 52tik % 55era igotzen dela.

### Dantza tradizionala / emanaldi-kopurua (2018)

		2018	
		EMAKUMEAK	GIZONAK
		% 0	% 100
Pertsonak		0	13

### Dantza garaikidea / emanaldi-kopurua (2018)

		2018	
		EMAKUMEAK	GIZONAK
		% 47	% 53
Pertsonak		23	26

### Antzerki-dantza / emanaldi-kopurua (2018)

		2018	
		EMAKUMEAK	GIZONAK
		% 67	% 33
Pertsonak		6	3

### Familia-dantza / Emanaldi-kopurua (2018)

		2018	
		EMAKUMEAK	GIZONAK
		% 75	% 25
Pertsonak		6	2

### Fusio-dantza / emanaldi-kopurua (2018)

		2018	
		EMAKUMEAK	GIZONAK
		% 43	% 57
Pertsonak		3	4



*Performancea / emanaldi-kopurua (2018)*

		2018	
		EMAKUMEA	GIZONAK
		% 0	% 100
Pertsonak		0	1

*Hiri-dantza / emanaldi-kopurua (2018)*

		2018	
		EMAKUMEA	GIZONAK
		% 0	% 100
Pertsonak		0	1

*Zirku-dantza / emanaldi-kopurua (2018)*

		2018	
		EMAKUMEA	GIZONAK
		% 0	% 100
Pertsonak		0	1

*Guztira / emanaldi-kopurua (2018)*

		2018	
		EMAKUMEA	GIZONAK
		% 45	% 55
Pertsonak		41	51

**DANTZAREN ALORREKO EMAKUME SORTZAILEEN PRESENTZIA EUSKADIKO BESTE PROGRAMAZIO EGONKOR BATZUETAN**

EAEen, dantza-ekoizpenen programazioaren zatirik handiena Sareak egiten du. Nolanahi ere, eskaintza hori hainbat antzoki independentetan, kultura-etxeetan eta urteroko festibaletan eskaintzen diren programazioen bidez osatzen da. Hurrengo lerroetan, programazio horietako batzuk aztertuko ditugu.

**Elipsiak / Azkuna Zentroa Alhóndiga**

Bilboko Azkuna Zentroak antolatzen duen dantza-ziklo bat da, eta Isabel Naverán du komisaria. Hirugarren edizioan, Estatu espainoleko eta nazioarteko artisten koreografia-piezak aurkeztu dira, eta jendaurreko elkarrizketa eta mahai-inguruak ere eskaini dira. 2016-2018 bitarteko programazioan ikusten denez, orekarako joera dago emakumeen eta gizonen presentziari dagokionez.

*Azkuna Zentroa Alhóndiga / Elipsiak (2016-2018)*

		2016		2017		2018	
		E	G	E	G	E	G
		% 50	% 50	% 50	% 50	% 33	% 67
Pertsonak		4	4	2	2	1	2

**La Fundación Aretoa**

La Fundación Aretoa Bilbon dago. 1986an sortu zen, eta arte eszenikoen sorkuntza garaikidea erakusteko eta dinamizatze gune bat da. 2016-2018 bitarteko urteko programazioak aztertuta, emakumeek urte horietan izandako egoera azter dezakegu.

**La Fundación Aretoa / urteko programazioa (2016-2018)**

2016		2017		2018		
E	G	E	G	E	G	
% 44	% 56	% 59	% 41	% 51	% 49	
Pertsonak	12	15	30	21	25	24

**dFERIA**

Arte eszeniko garaikideen urteroko azoka bat da, eta hiru programazio ditu: tokikoa, estatukoa eta nazioartekoa. Donostian egiten da, hiriko hainbat kultura-espaziotan, eta zenbait instituzioren laguntza du, hala nola Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Espainiako Kultura Ministerioa.

2016-2018 bitarteko programazioak aztertuz gero <sup>20</sup> ikusiko dugu emakumeek gidaturiko proiektu-kopurua gizonen gidaturikoena baino handiagoa dela.

**dFERIA (2016-2018)**


2016		2017		2018		
E	G	E	G	E	G	
% 50	% 50	% 81	% 19	% 64	% 36	
Pertsonak	4	4	30	7	9	5

**BAD Bilbao Jaialdia**

Bilboko Antzerki eta Dantza Garaikidearen Jaialdia (BAD) <sup>21</sup> 1999an sortu zen, eta berdin hartzen ditu tokiko artistak zein Estatu espainoleko eta nazioarteko erreferentziako konpainiak. 2016-2018 bitarteko programazioan oreka bat dago emakumeek eta gizonen gidaturiko proiektuen artean, lehenek joera gorakor progresibo bat erakusten badute ere.

**BAD Festibala (2016-2018)**

2016		2017		2018		
E	G	E	G	E	G	
% 54	% 46	% 56	% 44	% 65	% 35	
Pertsonak	7	6	10	8	11	6



<sup>20</sup> dFERIA web: <http://www.dferia.eus>

<sup>21</sup> BAD Jaialdia: <http://badbilbao.eus/web/>





4.

**LABURPEN  
GISA**



## 4. LABURPEN GISA

Orain arte aurkezturiko datu kuantitatiboak aintzat harturik, lehen laburpen bat egin dezakegu.

Antzerkiarekin batera, dantza profesionalak EAEko Kultura eta Sormen Industriaren sailkapenean jasota dagoen Arte Eszenikoen sektorea osatzen du. Sektore horretan, 34 dantza-konpainia<sup>22</sup> eta 177 antzerki-konpainia daude. ADDE<sup>23</sup> elkartearen dantza-katalogoari begiratzen badiogu, ikusiko dugu 2016-2018 bitartean bildutako konpainia guztien % 53tan emakumeak direla nagusi.

### Dantzaren alorreko prestakuntza

Goi-mailako dantza-eskolek eskaintzen duten prestakuntzaren helburua da dantzari profesionalak sortzea. EAERI dagokionez, Dantzerti eskola 2016an sortu zen, eta urtetik urtera gero eta emakume gehiago matrikulatu dira; lehen hiru urteak kontuan hartuz gero, emakume-kopuruaren batezbestekoa % 82koa da.

Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua alde batera utzita, Dantzerti eskolako curriculumeko ikasgaietan ez da ageri genero-ikuspegiaren ebidentziarik (ikasgaien curriculum-deskriptoreetan eta haien edukietan ez dago genero-ikuspegiaren arrastorik; egongo balitz, aukera emango luke dantzaren historia genero-ikuspegiarekin aztertzeko edo koreografia-lan baten sorkuntzaren azterketa genero-ikuspegiarekin egiteko). Halaber, ikasleei, ez zaie eskatzen analisi estetikorako genero estereotipoekin apurtzeko gaitasun artistikorik garatzeko orduan genero-ikuspegia aintzat hartzea. Horrenbestez, esan dezakegu gaur egunean ez dela aintzat hartzen genero-ikuspegia goi-mailako dantza-prestakuntzaren jardunean.

Bestalde, EAEko hiru foru-aldundiek EAEko eta EAETik kanpoko dantza-prestakuntza profesionalerako ematen dituzten beketan, emakumeen batez besteko presentzia gizonena baino handiagoa da: % 76koa, 2016-2018 urteen bitartean.

Hiru beka horien oinarriari begiratzuz gero, adinaren arabera irizpideak aurkituko ditugu (eskatzaileek 16 eta 30 urte bitartean izan behar dituzte), baina aukera-berdintasuna ez da berariaz aipatzen. Horrek, eta beka-eskatzaileen artean emakume ugari egoteak, sendotu egiten du gizartean dagoen pertzepzioa, hots, dantza sektore feminizatua dela eta emakumeak soilik jarduten direla honetan. Nolanahi ere, ustez “feminizatua” den sektore horretan, emakume ikasleen lan-etorkizuna gizonena baino okerragoa da, hain justu ere horregatik, gizonak gutxi direlako eta mundu profesionalean haien behar handiagoa delako, proportzionalki. Beraz, esan dezakegu emakume dantzarietako etorkizuneko lan-merkatu lehiakorrago bati egin behar diotela aurre prestakuntzaren hastapenetik, eta gizonen errazago egingo dutela bidea merkatu horretan eta errazago lortuko dutela aintzatespena.

### Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak dantza-ekoizpenerako

Dantzaren alorrean, profesionalizazioa dirulaguntza publikoen mendekoa da. Dantza-konpainien autofinantzaketa-maila % 66,3koa da, eta, beraz, dirulaguntza publikoek<sup>24</sup> pisu espezifiko handia dute, % 33,7koa. Horregatik, dirulaguntzak erabakigarriak dira dantza-sorkuntzaren kultura-proiektuen jasagarritasun ekonomikorako.

Eusko Jaurlaritzak 2016-2018 bitartean dantzari eskaini zizkion dirulaguntzak aztertuta, ikusten dugu kasu gehienetan emakume-kopurua gizon-kopurua baino handiagoa dela, modalitate guztietan. Halere, azterketa horrek erakusten digu baita emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunerako joera bat dagoela eskatzaileen artean: “Koreografia-sorkuntza” modalitateko maila “txikiko” proiektuetan, eskatzaileen % 67 dira emakumeak; “Dantza-ekoizpena 1” modalitateko “erdi-mailako” proiektuetan, eskatzaileen % 69; eta “Dantza-ekoizpena 2” modalitateko proiektu “handietan”, % 42. Hau da, formatua zenbat eta handiagoa izan, emakumeen presentzia txikiagoa da. Dirulaguntzen eskala gorakorrekin jarraituz, “Konpainiak egonkortzea” modalitatara iristen gara (2017 eta 2018 urteetan, % 54 izan ziren emakumeak). Eta aurkezturiko proiektuak eta jasotako dirulaguntza zehatz-mehatz aztertzen baditugu, ondorio hauek erdietsiko ditugu: 2017an,

<sup>22</sup> CULTURABase, Instituto Nacional de Estadística (2017) <http://www.culturaydeporte.gob.es/servicios-al-ciudadano/estadisticas/cultura/mc/culturabase/portada.html>

<sup>23</sup> Dantza-katalogoa, ADDE (2018)

<sup>24</sup> (8. or.) Arte eszenikoetako ekoizleak (2010) in Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma

emakumeak buru zituzten proiektuen portzentajea % 50ekoa izan zen (3 konpainia, aurkezturiko 6etatik), eta dirulaguntzen % 42,4 jaso zuten; 2018an, % 63 (5 konpainia, aurkezturiko 8etatik), eta dirulaguntzen % 55,8 jaso zuten. Datu horiek desberdintasun bat erakusten dute emakumeen proiektuei dagokienez: emakumeen eta gizonen konpainia-kopurua bera izanda ere, baliabide ekonomikoak ez dira berdintasun-irizpideen arabera banatzen.

### Erresidentzia artistikoak eta dantza-sorkuntza sustatzeko espazioak

Gaur egun, erresidentzia artistikoak funtsezko baliabideak dira koreografia-sorkuntzarako. Alde batetik, ekoizpenaren prozesu trinkoetan artistek elkarbitzita kolektiborako behar duten espazio materiala eskaintzen dute; bestetik, tokiko eragileak (artistak, publikoa, programazio-agenteak) elkarrekin egoteko espazioa eskaintzen dute.

Sektore publikoari dagokionez, EAEn erresidentzia bakar bat da aipagarria: Gipuzkoako Foru Aldundiak Dantzagunearen instalazioekin eta zerbitzuekin egin duen apustua, egonkortasun bat eskaintzen diena dantza-sortzaile ugariri. Araban eta Bizkaian ez dago horrelakorik. Gainerako ekimen garrantzitsu gehienak pribatuak dira eta/edo babes publiko handia daukate (Azala, Azkuna Zentroa, La Fundición, Arropaineko Arragua...), eta erresidentzia-mota desberdinak eskaintzen dituzte.

Emakumeen presentzia orekatua da tokiko egonaldi artistikoetan (% 66) zein nazioarteko mugikortasun-programetako egonaldietan (% 63).

### Dantzaren alorreko sorkuntza-taldeetako rol profesionalak

ADDE elkartearen dantza-katalogoko 2016-2018 bitarteko fitxa artistikoetatik jasotako informazioaren arabera, dantza-ekoizpenaren alorrean rol profesionalak oso desberdinak dira emakumeen eta gizonen artean. Emakumeen presentzia askoz handiagoa da rol batzuetan (zuzendaritza, % 59; koreografia, % 53; interpretazioa, % 57; jantziak, % 75) beste batzuetan baino (musika/soinua, % 19; eszenografia, % 45; argiztapenak, % 19; banaketa, % 81). Datu horiek agerian uzten dute ezen

“argiztapen”arekin, “eszenografia”rekin eta/edo “musika/soinu”-arekin loturiko roletan emakumeak gutxiengoa direla eta, alderantziz, “jantziak” eta “banaketa” nagusiki emakumeek egien dituzten jarduerak direla.

Egindako elkarrizketetan hautemandakoaren arabera, onartu egiten da, oro har, rol “tekniko”etan nagusiki gizonak jardutea. Era berean, ekipo artistikoa osatu behar denean, pertsona “gertuko”ak eta profesionalak bilatzeko joera dago, sektore batean non gehienak gizonak diren. Ondorioz, argiztapenean eta soinuan diharduten emakume gazteentzat, oraindik ere sektore horretan izen bat egiteko aukerarik izan ez dutenak, ez da erraza talde horietan sartzea.

### Emakumeen eta gizonen presentzia Sarean parte hartzen duten antzokietako eta kultura-etxeetako dantza-programazioan

Sarea EAEko programazio-sare profesional nagusia da. Sarearen programazio-datuei begiratuta, emakumeek eta gizonak EAEko testuinguru profesionalan duten tokia azter dezakegu. Halaber, programazio-datu horiek islatzen dute zer-nolako edukiak lehenesten dituzten antzokietako programatzaileek. Datu horien arabera, eta dantzari dagokionez, emakumeak buru dituzten proiektuak % 46 dira, eta emakumeek ekoiztiriko obren emanaldiak, berriz, % 43. Beste behin ere, ikus dezakegu nola emakumeen “presentzia” ordezkaritza orekatura hurbiltzen bada ere emakumeen “eskaerak” eta “irabazi ekonomikoak” gizonezkoenak baino txikiagoa izaten jarraitzen duten.

### Emakumeen eta gizonen presentzia EAEko beste dantza-programazio batzuetan

Sarea erakundeak eskaintzen dituenarekin batera, EAEn badira dantza profesionalaren emanaldiak eskaintzen dituzten beste egitura batzuk, beste era bateko ikuskizunak programatzen dituztenak (jaialdietan, areto independenteetan, kultura-etxeetako programa komisariatuetan) eta nolabaiteko egonkortasun pragmatiko bat eskaintzen dutenak. Horietako askotan, programazioaren ildo nagusia estatuko eta nazioarteko ekoizpenek osatzen dute, eta, gutxi batzuetan, jardunbide kuratorialetan oinarrituriko zuzendaritza artistiko bat dute (esate batera, Azkuna Zentroko Elipsiak), eduki

berritzaile eta esperimentalak eskaintzen dituztenak eta, beraz, Sarea erakundearen eskaintzatik bereizten direnak.

### Komunikabideak, sariak, kritika, akademia

Kulturaren sorkuntza printzipio mobilizatzaile, dinamiko eta transbertsala da, kohesionatzailea eta partizipatiboa; izan ere, kulturaren sorkuntzak gizarte jakin batek –gizarte bateko taldeek eta kolektiboek, esanahi-komunitate gisa ulerturik– partekatzen dituen esanahien, jardunen eta baloreen sarea eratzen du <sup>25</sup>. Kulturaren ikuspegi biderkatzaile hori aintzat harturik, komunikabideek, sariak, ikerkuntzak eta literatura kritikoaren ekoizpen akademiko zein independenteak ekarpen bat egiten diote balio-kateari; hain zuzen ere, kulturaren ikusgaitasunari eta legitimitasunari eta balioztatze kulturalari dagokion katebegiari egiten diote ekarpena. Alde horretatik, ez dago apustu politiko argirik –Kulturklik <sup>26</sup> alde batera utzirik–, aldizkako hedabide orokor bat sortzeko, kulturaren eta dantzaren gaurkotasunarekin loturiko kultura-emanaldiei buruzko albisteak emango dituen. Programa batzuk desagertu egin dira (Meteorik <sup>27</sup>, EITBn) eta ez da haien ordezkorik sortu, eta horrek agerian jartzen du ez dagoela komunikabideak aintzat hartzen dituen politika kulturalik EAEko dantza-sortzaileak eta dantzaren alorreko sorkuntza-prozesuak ikusarazteko.

### Dantza-sorkuntzari zuzendutako sariak EAEn

EAEn ez daukagu arte eszenikoen saririk, pareka daitekeena, adibidez, instituzioek ematen duten Gure Artea <sup>28</sup> sariarekin, zeinaren xedea baita EAEko sorkuntza plastikoa sustatzea eta gizartean zabaltzea. Era berean, esanguratsua eta deigarria da nola Gure Artea sariak aintzakotzat hartzen dituen eta saritu egin dituen dantza-sorkuntzaren alorreko

ekimen artistiko transdiziplinarrenak, talde mistoek edo soilik emakumeek gidatuak, hala nola Mugatxoan (2014), Azala (2018) eta Polaraiska andrea (2018). Baina, dirudinez, EAEko arte eszenikoetan ez dago baliabiderik ikusizko arteetan airtortzen eta balioesten diren diziplinaz haragoko proiektu horiek aintzakotzat hartzeko.

Tokiko azoka eta jaialdietan hainbat sari daude (Umore Azoka; Dferia/Donostia Saria; festival Act ...), baina ez dute lehenago aipatu ditugun sariak duten bezainbesteko oihartzun eta ondorio sozial, ekonomiko ez mediatikorik. Gainera, ez da ikusten sari horien balorazio-irizpideetan genero-ikuspegia txertaturik dagoenik. <sup>29</sup>

Horrenbestez, esan dezakegu EAEko koreografoei prestigio eta aintzatespen handiena eskaintzen dieten sariak EAetik kanpora kokatuta dauden testuinguruetatik datozela (adibidez, estatu-mailan gehien aipatzen direnak: Espainiako Dantza Sari Nazionala, SGAEn Max sariak eta Madrilgo koreografia-saria).

### Dantzari buruzko literatura eta kritika

Esan bezala, EAEko instituzioek eta gizarteak ez diote behar besteko balioa ematen dantzaren lan artistikoari: ez dago lan hori aintzatesten duen sari edo bestelakorik. Horrekin batera, eta ez kasualitatez, EAEn ez dago dantzari buruz hausnartzeko eta dantzaren gaineko ikerketa kritikoak egiteko testuingururik. Oraingoz, EAEn ez dago dantzaren inguruko ikerketarako eta dokumentazioa biltzeko erreferentziatzko erakunderik, gurean dauzkagun ikertzaileen <sup>30</sup> “masa kritikoak” aski bada ere. Gasteizko Artearen Historiaren fakultatean <sup>31</sup> ez dago dantzari dagokion sailik, eta, beraz, gaur egun Dantzertin bakarrik ematen dira dantzaren historiarekin loturiko ikasgai ofizialak. Ikerketaren eta literatura kritikoaren bidez dantzari buruzko

<sup>25</sup> Geertz, C. (1973) *The Interpretation of Cultures*. New York: Basic Books [Gedisa, 1988] in Lorente, E. *Creación, educación e investigación. Análisis de la cadena de valor y propuestas de política cultural* (Primer informe sobre el estado de la cultura CAE 2015)

<sup>26</sup> <http://www.kulturklik.euskadi.eus/hasiera/>

<sup>27</sup> 1998-2012 bitartean, Marian Gerrikabeitiak zuzenduriko programa, manifestazio artistiko garaikideei buruzkoa.

<sup>28</sup> “*Esanguratsua da egiaztatzea genero-parekidetasuna gero eta handiagoa dela Gure Arteako parte-hartzaileen, sarituen eta epaileen artean.*” *Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzu nezkoetan* (2016). *Kulturaren Euskal Behatokia* (2016)


<sup>29</sup> Umore Azoka sariaren oinarriak (2014): Epaimahaiak honako ebaluazio irizpide hauek izango ditu kontuan: kalitate artistikoa (zuzendaritza, interpretazioa, musika, koreografia, erritmoa...), kalitate teknikoak (jantziak, eszenografia, argizatzea, atrezzoak, karakterizatzea, soinua, produkzioa...), originaltasuna, sormena, berrikuntza eta erakargarritasuna.

<sup>30</sup> Ikus hemen autoreen zerrrenda: <http://www.ehu.eus/ojs/index.php/ausart/issue/view/1356>

<sup>31</sup> <https://www.ehu.eus/eu/artearen-historiako-gradua#>

ezagutza kritikoa zabaldu eta ekoizteko testuinguru <sup>32</sup> irregular horrek badu beste alderdi bat: dantzan eta arte biziaren ez da egiten genero-ikuspegiari buruzko hausnarketarik.

EAEEn dantzaren inguruko ikerketa eta literatura kritikoa bultzatu duten ekimenen artean, hauek aipa daitezke: AusArt <sup>33</sup> ikerketa-aldizkariak “Dantzaren inguruko ikerketa” izenburuko ale monografiko bat argitaratu zuen 2015ean (argitalpen hartan, artikulugileen % 81 emakumeak ziren, eta horrek iradokitzen du arte eszenikoen alorrean diharduten emakume asko unibertitate-doktoreak direla); 2014an, Bilbon egin zen Espainiako Dantzaren alorreko Ikerketarako III. Kongresu Nazionala (antolatzaileak: D más I: Danza e Investigación <sup>34</sup> elkarte espainiarra eta UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea eta Arte Ederren Fakultatea); Eresbil-ek <sup>35</sup> (musikaren euskal artxiboa), berriki, dantza garaikidearen alorrean EAEEn ekoitziriko lanen artxibo audiobisualen bilketa zabaldu du (baina onlineko bilatzailean ez dago lan horien egileak sexuaren arabera identifikatzen dituen aurkibiderik, eta, beraz, ezin da aztertu emakumeen eta gizonen presentziaren arabera).



<sup>32</sup> Hor sartzen dira berdin [www.danzan.eus](http://www.danzan.eus) webgunea (EAEko dantza-kulturaren molde desberdinen berri ematen du) zein jarduketa koreografikoari eta pentsamenduari buruzko argitalpen autogestionatu berrienak [http://www.coletivoqualquer.com/DARDARISMOA\\_1.pdf](http://www.coletivoqualquer.com/DARDARISMOA_1.pdf)

<sup>33</sup> 2019rako, irekita dago beste monografiko bat egiteko deialdia: “Investigación en Danza II” <http://www.ehu.es/ojs/index.php/ausart/issue/view/1356>

<sup>34</sup> <https://danzamasinvestigacion.com/congresos-anteriores/congreso-2014/>

<sup>35</sup> 1974an sortu zen, eta xedetzat du musika-ondarea ikertu, bildu, zaindu eta zabaltzea, bereziki Euskal Konposatzaileen ekoizpena. <http://www.eresbil.com/index.asp?lng=eu>







# 5. IRITZI-ARTIKULUA

## IRITZI-ARTIKULUA

Ondoren datorren “iritzi-artikuluan”, txosten kualitatiboan jasotako datuak aztertuz atera ditugun ondorioak bildu ditugu. Horrez gain, 2019ko lehen hiruhilekoan dantzaren alorreko 13 profesionali egindako elkarrizketa irekietan jasotako gogoetak eta ahotsak ekarri ditugu.

Dantza arte bat da, norberaren bizitzatik ondorioztatzen dena, giza gorputz osoaren ekintzatik, nahiz eta ez den iristen bizitza praktikoaren artea izatera, bere osotasunean. Baldintza hori –nahitaezkoa, iragankorra eta dantzaren gorputzei atxikia– dela-eta, historikoki dantza arte problematiko bat izan da arte ederretako museoetan eta akademietan txertatzeko, biak ere artearen sistema legitimatzen duten instituzioak. Trukerako objektu ukigarri bat izateko ahalmenik ez duenez (hau da, artxibatu, katalogatu, biltegitatu edo galerietan saldu ahal den objektu bat), dantza salbuespen bitxi gisa begietsi izan da eta, nagusiki, entretenimenduaren esparrura eta antzokien ikusgarritasunera desplazatu da.

Antzokietan finkatu den ikuskizun-dantza horrek ekarri du dantza, nagusiki, adierazpen-arte sentsual gisa ikustea, begirada maskulino<sup>36</sup> eta sexualizatuaren<sup>37</sup> zerbitzura dagoena, artearen historian gorputzaren bidezko adieraz-penak hartu izan dituen beste forma eta diskurtso ugariatian ez bezala. Hortaz, antzokietan, eta publiko burges baten begirada heteronormatibo errearen azpian, dantzak bilakaera historiko eta kultural bat izan du.

Gaur den egunean, dantzak estigma sozial bera izaten jarraitzen du: maila apalagoko artetzat jotzen da. EAEra etorrita, eta kultura kontsumitzeko ohiturei begiraturaz gero, dantza azkenurrena da, lirikaren aurretik, kultura-jardueretikiko interesaren rankingean <sup>38</sup> Dantza herrikoiak bizirik irauten du plazetan eta Youtube-ko

playlist-etan, baina antzokietan programatzen den dantzaren publikoaren zatirik handiena emakumeek osatzen dute, eta oraindik ere gutxiengoari eta elite bati zuzendutako artetzat jotzen da.

*“La danza contemporánea sufre de un estigma, que no sé si es por una cuestión de género o más sobre un prejuicio intelectual sobre la danza contemporánea donde el público dice que no entiende”. (entrevista #4) <sup>39</sup>*

Dantza bazterreko diziplina bat izateak eragin zuzena du jardun honetan diharduten langileen estatus sozialean. Dantzaren alorreko sortzaileek zehatz-mehatz irudikatzen dute kapitalismo kognitibo berriako langile immaterial eta moldakorraren etika berria<sup>40</sup> (pertsona mugikorra, jakinguratsua, berritzailea, independentea, irudimentsua, autonomia, instituzioekiko kritikoa eta bizitza erabat lanari emana). Pertsona horiek ekonomia lurrunkor batekin bizirauten dute, eta, kulturaren merkatuan toki bat izaten jarraitu nahi badute, ezinbestekoa dute bi jarduera hauek uztartzea: alde batetik, sorkuntza-lana erresidentzia artistikoetan eta etengabeko prestakuntza; bestetik, proiektuen kudeaketa, dirulaguntza instituzionalen eskaera, ikuskizunen banaketa eta kultura-arloko eragileekiko harremana.

*“Honetaz bizitzeko zure ate guztiak irekita egon behar dira: Interpretazioa, sorkuntza, pedagogia, ikerketa, la camarera, la clase de yoga,.....eta hamar mila gauza gehiago.”<sup>41</sup> (#12 elkarrizketa)*

*“En esta profesión tienes que dedicarle tiempo a estar físicamente en máximo rendimiento. Si además tienes que encontrar un medio de vida porque no te lo da el escenario lo tienes que buscar en otras partes.” (entrevista #13) <sup>42</sup>*

36 *¿Existe una diferencia entre una danza sin género, femenina, andrógina y masculina? ¿no ha sido la danza en una gran parte una danza masculina, sobre un mundo masculino, fuera o no bailada por hombres y mujeres?* Sally Banes, *Substanceless Brutality en Before, between and Beyond. Three decades of dance writing.* University of Wisconsin Press (2007).

37 “En el ballet clásico del s. XIX y en los Ballets de Diaghilev de inicios de s. XX, mujeres y hombres han servido de objeto del deseo heterosexual y homosexual masculino.” Lynn Garafola, *Legacies of Twentieth-Century Dance* Wesleyan University Press (2005).

38 Euskal Herriko kultura ohituren, praktiken eta kontsumoaren estatistikak 2007-2008 [http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/estadistica/kultura\\_ohiturak/eu\\_ohiturak/adjuntos/Euskal\\_Herriko\\_ohiturak\\_laburpen\\_executiboa\\_2007\\_08.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/estadistica/kultura_ohiturak/eu_ohiturak/adjuntos/Euskal_Herriko_ohiturak_laburpen_executiboa_2007_08.pdf)

39 “Dantza garaikideak badu estigma bat, eta ez dakit genero-kontu bat den edo dantza garaikidearekiko aurreiritzi intelektual bat, baina jendeak esaten du ez duela ‘ulertzen’.”

40 Paulo Virno, *Grammar of the Multitude: For an Analysis of Contemporary Forms of Life* (New York: Semiotext(e), 2004), 17. In Ramsay Burt, *Ungoverning Dance: Contemporary European Theatre Dance and the Commons* Oxford University Press (2017).

41 “*LANBIDE honetan, fisikoari dagokionez, sasoi betearen egon behar duzu beti, eta denbora behar duzu horretarako. Baina, horrez gain, bizibide bat izan behar duzu, eta, antzetzokitik lortzen ez baduzu, beste toki guztietan bilatu behar duzu.*”

42 “Dantza garaikideak badu estigma bat, eta ez dakit genero-kontu bat den edo dantza garaikidearekiko aurreiritzi intelektual bat, baina jendeak esaten du ez duela ‘ulertzen’.”

Moldakortasun hori bat dator lanaren behin-behinekotasunarekin eta aldizkakotasunarekin, halaber lanbidea duinduko lukeen aintzatespen juridiko baten eta babes legal baten faltarekin <sup>43</sup>.

*“No puedes tener perspectiva de un proyecto. Pensar de un año a otro, siempre esa idea vivir el presente, justificando el pasado e inventando el futuro crea una inestabilidad brutal.” (#10 elkarrizketa) <sup>44</sup>*

*“En todo el estado, para poder vivir de ello, porque no solo es la creación, sino los tiempos entre: o es los bolos o es inventar otras cosas, tienes que estar con la maquinaria en marcha todo el rato.” (#3 elkarrizketa) <sup>45</sup>*

Gaur egun, dantza “arte eszeniko”en azpisektorearen barruan kokatzen da Euskadiko Kultura Industrian.<sup>46</sup> Baina, hori hala izanik ere, dantza prekariedade-egoeran dago, eta egoera hori okerragoa da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei erreparatzen diegunean.

Desberdintasun hori prestakuntza-fasean agertzen da lehenengoz. Dantzaren goi-mailako prestakuntzan abiatzen diren gehienak emakumeak badira ere, jarraian hautematen dena da dantza profesionalean etorkizun laborala zalantzaragoa dela emakumeentzat eta seguruagoa gizonentzat.

*“Entre nosotras siempre decíamos que los chicos siempre tendrían un rol, por ser menos y porque tenían que estar presentes sí o sí.” (#12 elkarrizketa) <sup>47</sup>*

Eskolan gizon gutxi daudenez, aukera profesional gehiago

dituzte. Gainera, arreta pribilegiatu bat lortzen dute eskolan.

*“En mi formación, al ser el único chico se me ha prestado más atención por una cuestión de machismo y por la energía (#2 elkarrizketa) <sup>48</sup>*

*“En la escuela, la actitud hacia la mujer era de que ellas solas aprenden y ya se las arreglan” mientras que la actitud hacia los hombres era que había que darles el apoyo necesario para que salieran adelante” (#12 elkarrizketa) <sup>49</sup>*

Dantzaren alorreko prestakuntzak berezkoa du gorputzak eta jarrerak diziplinaren eta errepikapen fisikoaren bidez modelatzea. Modelatze horren barruan sartzen da, batetik, esplorazio propiozeptibo; bestetik, heredaturiko mugimendu-ereduak eta genero-irudikapenak berreraikitzea. Prestakuntza-fase horretan, oraindik ere dantza klasikoaren eta bere estereotipoen kanona da eredu hegemonikoa,<sup>50</sup> eta horrek markatzen du nolakoak izan behar duten dantzarien gorputzek: arintasunaren eta leuntasunaren adierazpena emakume femeninoari dagozkio, eta indarra eta muskulatura, gizonari.

*“La danza es el lugar donde funcionan los estereotipos: joven, guapa, ...el síndrome de la “chica guapa”, la chica sensual. Una sensualidad nada real, anoréxica y fría. Esto está alimentado por la escuela y por el mercado. (#3 elkarrizketa) <sup>51</sup>*

Dantza klasikoaren genero-estereotipo horiek emakume-gorputzen eta gizon-gorputzen tipologia idealizatu bat berresten eta finkatzen dute.

43 Erreferentzia egiten dio 2019an “Artistaren Estatutua” sortzeko eta Kongresuan tramitatzeko sustaturiko legegintza-agendari.

44 *“Ezin duzu izan proiektu baten perspektiba. Urte batetik bestera pentsatzea, oraina soilik bizi behar izate hori, iragana justifikatuz eta etorkizuna asmatuz, horrek ezegonkortasun itzela eragiten du.”*

45 *“Estatu guztian, horretatik bizi ahal izateko, ez baita soilik sorkuntza, baita bitartean dauden denbora-tarteak ere: edo bolok dira, edo beste gauza batzuk asmatzea da. Makinaria beti martxan izan behar duzu.”*

46 EAEko KSien sektoreen zehaztapen kontzeptuala eta definizioa: [http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb\\_argit\\_ksi\\_mugaketa\\_2018/es\\_def/adjuntos/Delimitacion\\_ICC\\_\\_EUSKADI.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_ksi_mugaketa_2018/es_def/adjuntos/Delimitacion_ICC__EUSKADI.pdf)

47 *“Emakumeon artean esaten genuen mutilek beti paper bat izanen zutela, gutxiago direlako eta egon egin behar zutelako, bai ala bai.”*

48 *“Prestakuntza-garaian mutil bakarra nintzen, eta arreta handiagoa eskuratzen nuen, matxismo-kontu bategatik eta energiagatik.”*

49 *“Eskolan, emakumeak horrela ikusten zituzten: “badakite bakarrik ikasten eta moldatzen”. Gizonekiko jarrera desberdina zen: aurrera egiteko laguntza eskaini behar ziguten.”*

50 Balletari egotziriko balio sozial eta politikoa beti izan da eliteko kultura europar baten ikurra, Luis XIV.aren garaiko frantziar gortean sortu zenetik. Beraz, kulturaren eredu politiko hori erre pikaturik, ez da harritzekoa Euskadin ere dantza klasikoaren konpainia nazional bat edo Euskal Balleta irudikatze txosten bat sortzeko zenbait proposamena egon izana berriki. [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pv\\_danza/es\\_6620/adjuntos/danza\\_c.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pv_danza/es_6620/adjuntos/danza_c.pdf)

51 *“Dantzan, estereotipoek funtzionatzen dute: gaztea, ederra... “neska ederra”ren sindromea, neska sentsualarena. Batere erreala ez den sentsualitatea, anorexia eta hotza. Eskolak eta merkatuak hori elikatzen dute.”*

52 *“Dantzan, gorputz eder eta estandarren estereotipoak dira ugari.”*

*“Los estereotipos de cuerpos bellos y estándar es lo que abunda en la danza.” (#1 elkarrizketa) <sup>52</sup>*

Gaur egun, goi-mailako prestakuntzaren curriculum akademikoak <sup>53</sup> ez dauka genero-ikuspegi kritikorik emakumeek eta gizonek dantzaren alorrean izan duten irudikapen historikoarekiko. Era berean, ikasleek gaitasun kritikoa garatu behar dute dantza genero-ikuspegiarekin aztertu ahal izateko, eta ez dago horretarako helbururik.

*“En mis años de formación no ha sido un tema tratado expresamente.” (#2 elkarrizketa) <sup>54</sup>*

Gorputz ideal “estandar” eta heterosexual baten hegemonia horren aurrean, ikasleek eredu kanonikoetara egokitu behar dute kognitiboki. Beraz, irakasle-taldearen profilarren eskuetan eta ikasleek autoprestakuntzarako dituzten aukeren menpe geratzen da artearen alorrari dagokionez genero-ikuspegiaren trebatzeko lana <sup>55</sup>.

*“Ni ez nintzen kanon femenino klasikoa, gehiago maskulinoa (indartsu, kilo gehiago. Beste lagun batzuk printsesak ziren: argalak, ez dute loditzen, ez maskulinoa.” (#12 elkarrizketa)*

*“Adin horretan, hoguei ta urte, arriskuak dituzu estereotipo hoi menpekotasunean jausteko eta zure osasunari kalte egin, adibidez, gutxiago janez.” (#12 elkarrizketa)*

*“Dantza munduan homosexual asko daude baina gizonen estereotipoa betetzea eskatzen zaie. Eskatzen zitzaizena zen, nabaritu behar zela da gizontasun hori.” (#12 elkarrizketa)*

*“Irakasleen arabera, ezberdintasun handia zeunden. Batzuk baloratzen zuten “pertsona” eta beste batzuk estereotipoa” (#12 elkarrizketa) <sup>5</sup>*

*“He empezado a ser más consciente del género después de salir de la escuela.” (#4 elkarrizketa) <sup>56</sup>*

<sup>53</sup> Errepertorioaren azterketa eta praktika I” Dantzerti <http://www.dantzerti.eus/gestor/recursos/uploads/documentos/IKASGAIK/D/1%20maila/D.%201go.-%20Errepertorioaren%20azterketa%20eta%20praktika%20I.pdf>

<sup>54</sup> “Prestakuntzan igaro ditudan urteetan, gai hori ez dugu berariaz landu.”

<sup>55</sup> Euskadin, badira artearen alorreko prestakuntza-testuinguru batzuk, genero-ikuspegiaren dutenak: ‘Ikuspegi feministak ekoizpen artistikoetan eta artearen teorian’, Lourdes Méndez UPV/EHUko Artearen Antropologiako katedradunak eta Xabier Arakistain arte-komisarioak koordinatua; eta Feministaldia (<https://feministaldia.org>)

<sup>56</sup> “Eskola amaitu ondoren hasi naiz generoaz kontzienteago izaten.”

<sup>57</sup> “Gorputz etereo, gazte, kaltegabe baten sentsualitatearen ideia hori, zeinaren arazoak baitira ‘komunikazioa-inkomunikazioa’, ‘maite zaitut-ez zaitut maite’... Korapilo horretatik atera behar dugu, behingoa.”

<sup>58</sup> “Emakumeon artean esaten genuen gizonek beti paper bat izanen zutela (...) haien maila txikiagoa izanda ere, beti paper bat izanen zutela koreografian.”

<sup>59</sup> “Irakaslearen arabera, desberdintasun handiak izaten ziren. Batzuek pertsonak baloratzen zituzten, eta beste batzuek, estereotipoak.”

Dantzaren alorreko interpreteen prestakuntzaren beste eremu kritiko bat azterketa eta sorkuntza koreografikoaren lana da (eta hori, era berean, jolas koreografikoan parte hartzen duten ideia eta ideologiaren azterketa dramaturgioko bat ere bada). Hemen ere, tradizioaren eta errepertorioaren ondoriozko inertzia eta autoritatea direla-eta, “emakume”en eta “gizon”en heteronormatibitatean zentratutako kanon narratibo jakin batzuk betikotzen dira.

*“Esa idea de la sensualidad de un cuerpo etéreo, joven, inocuo, que sus problemas son “comunicación-incomunicación”, “te quiero-no te quiero”... tenemos que salir de ese lio de una vez” (#3 elkarrizketa) <sup>57</sup>*

Bestalde, ikasleek zentro akademikoetako prestakuntza-fase horretan egiten dituzte lehen castingak. Irakasleek egiten dituzte, gizartean nagusi diren estereotipoak jarraikiz.

*“Entre nosotras decíamos que ellos siempre tendrían un papel (...) que aunque su nivel fuera inferior siempre tendrían un rol en la coreografía.” (#12 elkarrizketa) <sup>58</sup>*

*“Según el profesorado, había grandes diferencias. Había quienes valoraban a las personas y había quienes valoraban a los estereotipos.” (#12 elkarrizketa) <sup>59</sup>*

*“Irakasleok, koreografiak sortzerakoan, haien kuttuneak edo rol zehatzen arabera aukeratzeko zituzten. Orain barre egiten dut baina goratzen dut guretzat kriston drama zela.” (#12 elkarrizketa)*

Dantza klasikoaren kanon estereotipatu horren aurrean, dantza modernoak –zeina sortu baitzen XX. mendearen hasieran, espresionismoaren, abstrakzio formalaren eta emakume koreografo inportante batzuen agerpenarekin– dantza klasikoaren genero-estereotipoen haustura ekarri zuen. Dantza modernoak estilo eta korrante ugari ditu, eta boteregune bat osatzen du gaur egun, bai akademian, bai dantzaren merkatuan.

Dantza garaikidearen hegemonia berri horrek bere adierazgarritasunari buruzko autokritika eta zalantza eragin ditu berriro.

*“Dantza garaikideak bere mugak markatzen ditu eta gainontzeko mugak ez ditu, benetako dantza” bezala baloratzen. Aurreiritzi pila bat daude, ez dutenak eboluzionatzen, zerbait endogamiko eta toxikoa bilakatuz.” (#5 elkarrizketa)*

Dantza garaikidearen alorreko sortzaile batzuentzat, dantzamota horrek bi elementu sinbolizatzen ditu: hobekuntza, batetik, eta genero-estereotipo ezarriak hausteko aukera, bestetik. Beste batzuentzat, ordea, dantza-garaikideak gizonen presentzia faboratzen jarraitzen du.

*“Cuando empecé a estudiar danza y, de forma un poco naif, sentí que era un lugar donde el movimiento y la danza como algo abstracto al que yo entraba, me dejaba expresarme de manera libre y podía desprenderme del género y que daba igual ser un chico o una chica.” (#3 elkarrizketa)*<sup>60</sup>

*“Nik ezberdintasun hori eredu klasikoan ikusten dut, baina kontemporaneoan batez ere: gizon indartsua, akrobatikoa, eta orain gizon apurtzailea eta alde femenino bat duena. Gizona, gizona, gizona.” (#12 elkarrizketa)*

Dantzaren alorrean, gorputzari estetikoki eta politikoki begiratzeko modu asko daude, eta horrek erakusten du haustura eta krisi sozial eta politiko bat dagoela dantza garaikide desberdinetan generoaren irudikapenari dagokionez.

*“La realidad es otra, es mucho más travestida. Lo que se representa como “danza contemporánea” en los teatros está muy lejos de la realidad. Mientras que en Euskal Herria las mujeres son muy feministas, mucha de la danza en Euskadi no refleja eso, queda muy lejos de la realidad.” (#3 elkarrizketa)*<sup>61</sup>

*“Nik gauzak lekuz kanpo ikustea atsegin dut, kanon hoiek apurtzeko eta adibidez, emakume edo gizon bat “ez dagokion” zerbait egiten ikustea.” (#5 elkarrizketa)*

Begirada kritiko horiek aukera ematen dute dantzaren bidez diskurtso ez-binarioak taularatzeko, alegia, sexuak irudikatzean heteronormatibitate zalantzan jartzen duten diskurtsoak, aintzat hartzen dutenak generoen arteko aldagarritasuna zein jarraitutasuna eta generoa osatzen duten aldagai identitarioen dibertsitatea (sexua, jatorri kulturala, sexualitate eta klase soziala).

*“A esa percepción naif de que “el movimiento no tiene género”, que por un lado no es verdad y por el otro es una bonita herramienta para explorar el cuerpo sin género o jugando con el género.” (#3 elkarrizketa)*<sup>62</sup>

*“Nik uste dut dantzak aukera hori ematen digula, ezberdintasunak gorputzaren posibilitate berriak ulertzeko aukera bezala” (#6 elkarrizketa)*

Akademiatik “profesionalizazio”ra jauzi egiteak esan nahi du bokazio eta prestakuntza artistiko bat egoera zehatz batean kokatzea, harremanetan jartzea testuinguru kultural batekin eta arte-merkatu batekin. Emakume batzuentzat, jauzi hori prestakuntza-urteetan bizi izandako desberdintasun-egoeraren isla da, eta horrek agerian uzten du ordezkartizan zein parte-hartzaileen artean emakume-kopurua gizon-kopuruaren berdina edo handiagoa (ikasketa arautuetan) izateak ez daukala islarik errealtatean.

*“Sorkuntzan sartu nintzen inoren zain ez egoteagatik, emakume bezala itxoiten ez egoteko. Gizon guztiak aukera pilo dituzte eta emakumeak borrokan paper bategatik...eta askotan ez hobea zarelako baizik eta argala delako, rubia delako, lodia delako, 1,80m neurtzen duelako,...dana arbitrarioa.” (#12 elkarrizketa)*

Oraindik ere, dantzaren alorreko kulturaren balio-katea aldagai hauetan oinarritzen da: batetik, ekoizpena; bestetik, artistaren eta kultura-programatzailearen arteko merkatu-harremana Oraindik ere, dantzaren alorreko kulturaren balio-katea aldagai hauetan oinarritzen da: batetik, ekoizpena; bestetik, artistaren eta kultura-programatzailearen arteko merkatu-harremana. Harreman horretan, artistak sormenezko eta kalitatezko lan bat ekoitzi behar du ezinbestean, baina ez hori

60 “Dantza ikasten hasi nintzenean, eta modu apur bat naifean, sentitzen nuen mugimendua eta dantza zerbait abstraktua zirela; orduan uste nuenaren arabera, dantzan sartu eta neure burua libreki espresa nezakeen, generoa gainetik kenduta, eta berdin zion mutila ala neska nintzen.

61 “Errealtatea beste bat da, askoz ere trabestituagoa. Antzokietan ‘dantza garaikide’ gisa ematen dena oso urrun dago errealtatetik. Euskal Herriko emakume asko feministak badira ere, EAEko dantzaren zati handi batek ez du hori islatzen, oso urrun dago errealtatetik.

62 “Mugimenduak ez dauka generorik’ baieztatzen duen pertzepzio naif hori, alde batetik, ez da egia, eta, bestetik, tresna polit bat da gorputza esploratzeko generoa aintzat hartu barik edo generoarekin jolastuz.”

bakarrik: ekoizitako lan hori irisgarria, justifikagarria eta komunikagarria izan behar da kultura-programatzailearen iritziz.

*“Todo depende de cómo te comuniqués con ellos, que entiendan tu arte y para ello necesitas de la ayuda de un discurso fuerte y claro, hacer reconocible tu personalidad artística por la figura del programador.” (#10 elkarrizketa) <sup>63</sup>*

Nortasun artistiko argi eta sendo bereizgarri bat izan behar horrek tradizionalki maskulinoa den eredu bati jarraitzen dio, harremanetan eta balio produktibistetan oinarrituriko eredua, zeinean proiektu baten “balioa” genero-espektatiben araberakoa baita.

*“Tengo la percepción, más allá de la paridad entre sexos en la danza, de que la percepción que se tiene de un hombre cuando defiende un proyecto es más favorable a la de una mujer y que todo está montado apoyado sobre valores del lado masculino del ser humano: poderío, contundencia, fuerza, afirmación,...no hay duda, no hay fragilidad.” (#1 elkarrizketa) <sup>64</sup>*

Nolanahi ere, artistei eskatzen zaien gardentasun hori ez dator bat kultura-erakunde <sup>65</sup> gehienek komunikazioan erakusten duten opakotasunarekin: ez daukate beren ildo estrategikoen manifestu publikorik, ez beren langileen profil profesionalen eta haien prestakuntzaren deskribapenik, ez eskainitako erresidentzia artistikoen argitalpenik, ez ildo pedagogikoaren eta bitartekaritza artistikoaren definiziorik. Bestalde, opakotasun horrek are gehiago berresten ditu antzokiak ikuskizun eta entretenimendu tradizionalaren edukiontzi gisa, eta gizarte-etxeetako kultura-kudeaketan ez dago berrikuntza-proiekturik.

*“¿Por qué un teatro se tiene que llenar solo cuando hay una función? Puede cumplir otros roles. Claro que tendríamos que cambiar los modelos de financiación. Pero tengo la impresión que*

*faltan muchas figuras y otros saberes y disciplinas (antropología, psicología, sociología,..) que pueden dialogar con otros agentes más tradicionales como son los artísticos o de gestión para crear otro panorama cultural. (#8 elkarrizketa) <sup>66</sup>*

Erakundeen opakotasun hori horrela ulertu ohi da: kultura-programatzaile ugari ez dute ezagutzen dantza-sektorea.

*“Ikusten dudana programadoreen artean ere bai gure gremioaz eta gure lanaz ezezagutza handia eta curiosidade gutxi dagoela. Askok iritzi dira horra funtzionario edo teknikoak direlako eta sektoreaz ezagutza gutxiarekin. Edonork egin dezakeen lan bat dela ematen du eta ez da horrela. Arte erarakusketa bat egiten duen komisario batek kurrikulum eta ibilbide bat du.” (#5 elkarrizketa)*

Prestakuntza-mailako hutsune hori antzoki askotako kultura-erakunde kudeaketan islatzen da

*“Euskal Herrian konformismo handia dago. Zer ekarri dezaket jende guztiari gustatzen zaiona da eta basta. Eta horrek eragin handia du: ausardi gutxi, danok kontentu mantentzeko nahia... publikoa ere hezi egin behar duzu” (#5 elkarrizketa)*

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, Espainiako Antzokien Sarean <sup>67</sup> % 35,70 dira emakumezkoak, eta EAEko Sarean, <sup>68</sup> berriz, % 44,8. Horrenbestez, kristalezko sabaia nabarmena da oraindik kultura-programatzailearen lanbidean.

*“Para mí, no es tanto una cuestión de paridad de género entre mujeres y hombres coreógrafas y coreógrafos sino de que los mayores interlocutores que tenemos en las políticas culturales son hombres, quienes dirigen las instituciones. Estos datos serían los que tendrían que estudiar.” (#3 elkarrizketa) <sup>69</sup>*

<sup>63</sup> “Haiekin nola komunikatzen zaren, haiek zure artea nola ulertzen duten, hor dago koska. Horretarako, diskurtso sendo eta argi bat behar duzu, programatzailea gai izan behar da zure nortasun artistikoa bereizteko.”

<sup>64</sup> “Dantzan, nire ustez, eta sexuen arteko parekidetasuna alde batera utzita, modu positiboagoan baloratzen dira gizonen aurkezturiko proiektuak emakumezkoen aurkezturikoak baino. Gizakiaren alderdi maskulinoaren balioetan oinarritzen da gutzia: boterea, irmotasuna, indarra, baieztapena... Argi dago, ez dago hauskortasunik.”

<sup>65</sup> Antzoki ugari udalen orri ofizialetan ezkutaturik geratzen dira, non antzokiaren ‘deskribapen teknikoak’ programazio artistikoak, kultura-arloko ildo estrategikoen eta horien arduradunen profil profesionalen baina garrantzi handiagoa izaten du.

<sup>66</sup> “Zergatik bete behar da antzokia funtzio bat dagoenean? Funtzioak beste rol batzuk ere izan ditzake. Horretarako, jakina, finantzazio-ereduak aldatu behar genituzke. Baina uste dut figura asko falta direla, baita beste ezagutza eta diziplina batzuk ere (antropologia, psikologia, soziologia...), eragile tradizionalagoekin solastatu daitezkeenak beste testuinguru kultural bat eratzeko, hala nola eragile artistikoekin edo kudeaketaren alorrekoekin.”

<sup>67</sup> [https://www.redescena.net/descargas/asociados/listado\\_asociados.pdf](https://www.redescena.net/descargas/asociados/listado_asociados.pdf)

<sup>68</sup> Sareako kide diren antzokien zerrenda (2019)

<sup>69</sup> “Niretzat, kontua ez da hainbeste koreografoen artean genero-parekidetasuna izatea; kontua da kultura-politikan daukagun solaskide gehienak, erakundeak gidatzen dituztenak, gizonenak direla. Datu horiek dira aztertu behar direnak.”



Sarea barruan dauden antzokiek 2018an izan zuten programazioa begiratu gero (non proiektuen % 48 emakumeek gidatuak izan ziren, baina soilik emanaldi guztien % 45),<sup>70</sup> ikus dezakegu badaudela % 100ean gizonen gidaturiko dantza-proiektuak (euskal dantza, dantza hiritarra) edo % 70-100 bitartean emakumeek gidatuak (familia-dantza, zirku-dantza).

Antzokiek programaturiko estilo eta generoen sektorializazio horrek are gehiago nabarmetzen du dantza-mota desberdinetan dagoen genero-estereotipoen pertzepzioa. Dantza-moldeen, genero-ikuspegiaren eta merkatu-aukeraren arteko harremanari buruzko iritzi horrek bi gauza erakusten ditu. Alde batetik, erakusten ditu kultura-programazioa askotan ageri diren balio kultural hegemonikoak. Bestetik, erakusten du ez dagoela bitartekaritza-lanik eta kultura-programazioetan ez dagoela genero-ikuspeirik. Programazio horietan, bai artistek bai publikoak errealitate sozial eta kultural garaikidearen dibertsitateari begiratu behar liokete aurrez aurre.

*“Para ser programador de danza tienes que ser un artista: tienes que mover públicos, tener ojo para mezclar lenguajes,...lo ideal es infectar unos lenguajes de otros.” (#3 elkarrizketa)*<sup>71</sup>

Dantzaren alorreko ekoizpenari dagokionez, profil eta rol desberdinetako sortzaileen taldeetan (artistak, teknikariak eta banaketa) nabarmena da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Koreografian eta interpretazioan emakumeek eta gizonen betetzen dituzten rolerak orekarako joera badute ere, lan teknikoagoetan (argiztapena eta eszenografia) agerikoa da emakumeek gutxiengo direla.

*“¿qué mujeres diseñadoras conoces en Euskadi? ¿qué mujeres técnicas de sonido conoces en Euskadi? Es que no conozco a técnicas mujeres” (#1 elkarrizketa)*<sup>72</sup>

*“Yo soy una de las pocas compañías que valoro muchísimo el de las personas colaboradoras.” (#4 elkarrizketa)*<sup>73</sup>

Aitzitik, jantziez eta banaketaz arduratzen diren lanpostuetan, emakumeak dira nagusi. Banaketaz arduratzen diren langileen egitekoa da ikuskizunak ezagutarazi eta saltzea programatzaileen artean, zeinak gizonak baitira kasu gehienetan. Testuinguru horretan, bat egiten dute merkataritzaren interesak, botere-gune hierarkikoak eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak, eta oraindik ere emakumeak bazterten dituzten eredu sexistak errepikatzen dira.

*“Eta hor bai, programatzaileek daukaten poterea erabiliz, tratamendu aldetik, gauza itsusi asko, entzun ditut. Euki nuen azken banatzaile batek kontatu zizkidan pila bat komentario naskagarriak programatzaileen aldetik. Zuk zure ikuskizuna saldu nahi duzu eta berak du potere bat. Abusatzen da potere horretaz. Hor bai dagoela desigualdade nahiko handia.” (#5 elkarrizketa)*

EAE-n, dantza-ekoizpena jarduera defizitario bat da oraindik, eta ezinbestekoak ditu Eusko Jaurlaritzak ekoizpenerako ematen dituen dirulaguntzak. Laguntza horiek urtean behin ematen dira, eta batez ere dantza-ekoizpena zuzenduta daude.<sup>74</sup> Dirulaguntzek dantza-konpainien finantzazio totalaren % 33,7 betetzen dute. Sektore profesionalaren barruan frustrazio handia dago, ikusten dutelako urteroko dirulaguntza horiek eredu produktibista bati jarraitzen diotela: “gehien saltzen” duenak aukera handiagoa du “dirulaguntza handiak” eskuratzeko, eta, horrela, lehen mailako eta bigarren mailako konpainiak sortzen dira.

*“Es la pescadilla que se come la cola: ¿por qué esta compañía tiene esta subvención? Porque puede actuar, ¿por qué esta compañía puede actuar? Porque tiene subvención.” (#10 elkarrizketa)*<sup>75</sup>

Horrekin batera, badago merkatu-dinamika bat, zeinak bultzatzen baitu ekoizpen-mota bat, asetzen duena kultura-programatzaileek ikuskizunak estreinatzeko duten “egarria” eta, aldi berean, eragozten duena erdi-mailako konpainien lan eszeniko asko, diruz lagunduak izan arren, normaltasunez jardutea antzokien zirkuituan eta gutxieneko merkatu-irismen batera ailegatzea.

<sup>70</sup> Dantzaren alorreko industriaren txostena genero-ikuspegia jasotzen duena, Jemima Cano (2019)

<sup>71</sup> “Dantza-programatzailea izateko, artista izan behar duzu: publikoa mugiarazi behar duzu, lengoaia desberdinak nahasteko begia izan behar duzu... idealena da lengoaia desberdinek elkar kutsatzea.”

<sup>72</sup> “Zer emakume ezagutzen duzu Euskadin, diseinatzailea dena? Zer emakume ezagutzen duzu Euskadin, soinu-teknikaria dena? Nik ez dut ezagutzen emakume teknikari bakar bat ere.”

<sup>73</sup> “Ni kolaboratzaileen generoa izugarri baloratzen dudana konpainia bakanetako bat naiz”

<sup>74</sup> (8. or.) Arte eszenikoetako ekoizleak (2010) in Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma

<sup>75</sup> “Bukatzen ez den soka da. Zergatik dauka konpainia horrek dirulaguntza hori? Ikuskizuna jendaurrean eman dezakeelako. Zergatik eman dezake ikuskizuna jendaurrean? Dirulaguntza bat daukalako.”



*“¿De qué vive un artista? Si yo me dedico a crear espectáculos de danza debería vivir de los espectáculos de danza y complementarlo con labores de mediación, sensibilización y formación, pero el grueso de mis ingresos debería ser resultado de mis bolos de danza. Porque si se invierte en mí x dinero público al año, tendría que repercutir en la exhibición. Sino tengo bolos, se rompe la circularidad de la economía.” (#10 elkarrizketa) <sup>76</sup>*

Bestalde, nagusiki ekoizpena sustatzen duen dirulaguntza-eredu batek ez du kontuan hartzen dantzaren alorreko profesionalak etengabeko prestakuntza bat behar dutela, eta ahaztu egiten du kulturaren alorreko berrikuntzak etengabeko pizgarriak eta zaintza behar dituela, dela tailerren bidezkoa dela ikerketa-foretan eta/edo festibaletan parte hartuta.

*“En la formación continua de los profesionales hay un gran vacío, no hay subvenciones. Tampoco puedes ir fuera a estudiar otros modelos para traerlos aquí. Nos lo tenemos que pagar nosotras. Necesitamos referentes, otros modelos otras experiencias. Si no puedes formarte no evolucionas.” (#10 elkarrizketa) <sup>77</sup>*

Dantza-ekoizpena bideraturiko dirulaguntzetan hainbat kategoria daude. Kategoria horietan gora egin ahala, emakume gutxiago aurki ditzakegu. Adibidez, “konpainiak finkatzeko laguntza” kategorian 8 konpainiak jaso zituzten dirulaguntzak 2018an; haien artean, emakumeek gidaturiko konpainiek (% 63) dirulaguntzen proportzio txikiagoa jaso zuten (% 55,80). Horrek zera esan nahi du: emakumeek gidaturiko proiektu-kopurua orekatua edo handiagoa izan arren gizonek gidaturikoen aldean, emakumeek gidaturiko proiektuek gizonek gidaturikoek baino bolumen txikiagoa jasotzen dute proportzionalki.

Era berean, dantza profesionalaren alorrean produktibitatea interpreteen lan-baldintza optimoen menpekkoa da, eta kondizio hori, askotan, errendimendu fisiko handiko lanarekin edo eliteko atleta baten lanarekin konpara daiteke. Hortaz, bikaintasun

fisiko hori, gaztetasunarekin eta/edo indar fisikoarekin lotua dagoena, ez da bateragarria lanbidearen, amatasunaren eta erantzukidetasun familiarraren arteko kontziliazioarekin.

*“Ikusten dut dantzatzen duten jendearen media oso gaztea dela (50 urtetakoak zenbat daude?). Pentsatzen dut, orain beste seme alabak banitu, sentsazioa dut gizartearentzat ez naizela baliogarrira izango” (#6 elkarrizketa)*

*“La mayoría de mis compañeras bailarinas no tienen hijas/os. Son decisiones personales pero creo que no están lejos de decisiones que tienen que ver con esta profesión.” (#13 elkarrizketa) <sup>78</sup>*

*“Si miro al tema de las conciliaciones, son pocas las mujeres que consiguen hacerlo. Son mayoría mujeres sin hijos. En Euskadi somos muy pocas las personas que podemos conciliar la actividad de la danza y la familia.” (#3 elkarrizketa) <sup>79</sup>*

Aldizkako lanak eta lurralde-mugikortasunak ez ditu jasotzen lana eta familia bateragarri egiteak eskatzen dituen zaintza-beharrei erantzuteko behar diren arreta eta baliabidea. Horrek, askotan, amatasunari eta aitatasunari uko egitea dakar dantzaren alorreko sortzaileen artean.

*“La mayoría de mis compañeras bailarinas no tienen hijas/os. Son decisiones personales pero creo que no están lejos de decisiones que tienen que ver con esta profesión.” (#13 elkarrizketa) <sup>80</sup>*

*“Beste moduak, beste gorputzak eta beste egiteko moduak aurkitu behar ditugu. Ez hainbeste “oraingo dantza” nola egokitu den nire bizi modura (amatasunaren egoera nire kasuan) baizik eta errealtitate honek zer nolako dantza modu berriei aukera ematen die. (#6 elkarrizketa)”*

Horrela, bada, kasu gehienetan, zaintza-beharrei bikoteen erantzukidetasunaren esparru pribatutik erantzuten zaie, edo/eta familiaren barruan sorturiko laguntza-sare

<sup>76</sup> “Zertatik bizi da artista? Nire lana bada dantza-ikusizunak sortzea, horretatik bizi behar nuke; lanbide hori bitartekaritza-, sentsibilizazio eta prestakuntza-lanekin ere osa nezake, baina nire diru sarreraren zatirik handiena dantza-boloetatik etorri behar litzateke. Izan ere, nire proiektuan diru publikoaren X euro inbertitzen badira urtean, inbertsio hori ikusizunari jasanarazi behar litzaioko. Bolorik izaten ez badut, hautsi egiten da ekonomia zirkulara.”

<sup>77</sup> “Hutsune handi bat dago profesionalen etengabeko prestakuntzan, ez dago horretarako dirulaguntzarik. Eta ezin duzu konpora joan, beste eredu batzuk ikasi eta gero hona ekartzeko. Gure poltsikotik ordaindu behar dugu. Erreferenteak behar ditugu, beste eredu batzuk, beste bizipen batzuk. Ezin baduzu zeure burua prestatu, ez duzu eboluzionatzen.”

<sup>78</sup> “Nirekin batera dantzan ari diren emakume gehienek ez daukate seme-alabarik. Erabaki pertsonalak dira, baina uste dut ez daudela urrun lanbide honekin zerikusia duten erabakietatik.”

<sup>79</sup> “Kontziliazioaren kontuari begiratzen badiot, emakume gutxiak lortzen dute kontziliaztea. Gehienak seme-alabarik gabeko emakumeak dira. Euskadin oso pertsona gutxiak uztartu ditzakegu dantzaren jarduna familia.”

<sup>80</sup> “Nirekin batera dantzan ari diren emakume gehienek ez daukate seme-alabarik. Erabaki pertsonalak dira, baina uste dut ez daudela urrun lanbide honekin zerikusia duten erabakietatik.”

inprobisatuetatik (aiton-amonak, lagunak), horiek egiten baitute posible familia-bizitza eta dantza-proiektu profesional jasangarri bat bateratzea.

*“Niretzako datak murrizten dira. Kanpora joatea konplikatu da. Ama nirekin eraman edo ez erabaki behar dut.” (#6 elkarrizketa)*

*“Muchas compañías de danza son parejas y esto facilita la conciliación.” (#3 elkarrizketa)*<sup>81</sup>

Beste aitortza batzuk falta diren bitartean, profesionalentzat ez dirudi lehentasunezkoa denik dantza eta arte eszenikoei “sari” bat ematea, EAEn dagokionez Gure Artea<sup>82</sup> sariaren antzekoa izan daitekeena.

*“Están muy bien los premios pero si no tienes medios para hacer tu trabajo, ¿cómo te van reconocer? La sociedad necesita reconocerse en la danza como un valor social” (#2 elkarrizketa)*<sup>83</sup>

*“Los premios pueden estar bien pero lo que realmente necesitamos es más exhibición y de la mano de la sensibilización.” (#4 elkarrizketa)*<sup>84</sup>

Dantzari zuzendutako plan integralik gabe<sup>85</sup> –zeinean zehaztuko bailirateke ildo estrategiko batzuk dantzaren eta arte eszeniko-enalorreko proiektuen eta langileen iraunkortasuna bultzatzeko–, ez da erraza defendatzea dantzaren aintzatespen soziala indartu behar dela sariaren eta kritika akademikoaren bidez.

*“La gran pregunta es: ¿les interesa? ¿Al Gobierno Vasco y a esta sociedad, les interesa realmente? ¿Te interesa tener una diversidad artística? o ¿te interesa tener cuatro nombres que tengan el mismo brillo? o ¿es para ir a un congreso internacional para contar como tenemos ayudas para artistas?” (#10 elkarrizketa)*<sup>86</sup>

Dantza-sorkuntzarako eta dantza-komunitateko sortzaileen arteko transmisio eta trukerako dauden egitura egonkor eta sendoen egoera irregularra eta desberdina da EAEn lurralde batetik bestera,<sup>87</sup> eta hori oztopo bat da dantzaren garapen profesional eta iraunkorrerako.

*“Cuando llegué aquí busqué en los centros culturales pero no tenían parquet. Si no hay suelos con parquet no puedes dar clases de danza. Si no das clases de danza la gente no va a ver danza. Y si no van a ver danza, tienen menor valor social. Si la danza no está en los colegios como parte de la formación para que los niños trabajen la expresión en las relaciones... Es precario porque no hay un valor social de cómo puede ayudar a distintos tipos de relaciones sociales: en la educación, en la actividad física y artística..., si no tiene valor, no se puede valorar.” (#5 elkarrizketa)*<sup>88</sup>

Programa batzuek –esate batera, Euskal Koreografo Berriak, 1996an Eusko Jaurlaritzak sustatua, ondoren Dantzan Bilaka programa ekarri duena (formatu txikiko ikerketa-prozesu koreografikoak bultzatu eta ezagutarazten ditu)– balio izan dute sorkuntza-dantzari nolabaiteko aintzatespena emateko gure mugen barruan, baina ez da iritsi EAEn kanpora kokatuta dauden beste sari mediatiko batzuek duten oihartzuna izatera (Max sariak, Espainiako Sari Nazionala, Madrilgo Sariaketa...).

81 *“Dantza-konpainia asko bikoteek osatzen dute, eta horrek kontziliazioa errazten du.”*

82 *“En cualquier caso, el Gure Artea (creado por el Gobierno Vasco en 1982) se ha introducido dentro del calendario festivo-folklórico de las artes en el contexto vasco. Es decir, su presencia de los medios de comunicación ha jugado y juega un rol importante en el Gure Artea de momento como noticia y habría que repensar hasta qué punto conviene esta exposición a la luz de los focos, o si por el contrario, la exposición a esta luz debería ser más duradera (...).” Peio Aguirre, Informe GureArtea: un análisis sobre la coyuntura de un premio* [https://www.academia.edu/3437877/Informe\\_Gure\\_Artea](https://www.academia.edu/3437877/Informe_Gure_Artea)

83 *“Sariak oso ondo daude, baina zure lana egiteko baliabiderik ez baduzu, nola aitortuko dute zure lana? Gizarteak balio sozial bat eman behar dio dantzari.”*

84 *“Sariak ondo egon daitezke, baina benetan behar duguna da gehiago erakustea, eta, horretarako, sentsibilizazioa behar da.”*

85 Katalunian dantzaren esparruan landutako Plan Integralaren (2009) adibidea daukagu. Plan horrek ikerketarako, sorkuntzarako eta ekoizpenerako aukerak sortzea du helburu, eta xede du, halaber, dantzaren zabalkundea, dantza herritar guztiengana iristea eta dantzak eta mugimendu-arteek presentzia handiagoa izatea esparru publikoan. [https://dansacat.org/arxius/biblioteca/pla\\_integral\\_de\\_la\\_dansa\\_definitiu.pdf](https://dansacat.org/arxius/biblioteca/pla_integral_de_la_dansa_definitiu.pdf)

86 *“Hau da egin beharreko galdera: interesatzen zaio? Interesatzen zaie Eusko Jaurlaritzari eta gizarte honi, interesatzen zaie egiazki? Interesatzen zaizu dibertsitate artistiko bat izatea? Edo interesatzen zaizu distira bereko lau izen edukitzea? Edo zure helburu bakarra da nazioarteko kongresu batera joatea eta han kontatzea artistei zuzendutako laguntzak dauzkagula?”*

87 Gaur gaurkoz, Dantzagunea (Errenteria) da EAEn dantza-sorkuntza sustatzeko eskuragarri dagoen ekipamendu publiko profesional esanguratsu bakarra.

88 *“Hona iritsi nintzenez, kultura-etxean bila aritu nintzen, baina ez zuten parketik. Parketa duen zorurik ez badago, ezin duzu eman dantza-eskolariak. Dantza-eskolariak ematen ez baduzu, jendea ez doa dantza ikustera. Eta dantzara joaten ez badira, balio sozial gutxiago dute. Dantza ez badago ikastetxean, hezkuntzaren parte gisa, haurrek espresioa landu dezaten harremanetan... Prekarioa da, ez duelako balio sozialik gizarte-harreman desberdinetan eskaini dezakeen laguntzaren inguruan: hezkuntzan, jarduera fisiko eta artistikoan... Baliarik ez badu, ezin da baliotzi.”*

Dantzaren alorreko sari sendo baten faltan eta sorkuntza-dantzaren inguruko kritika literario eta akademikoaren sarerik gabe, aintzatespen eraginkorra merkatu-logikaren eskuetan geratzen da, baita antzokietako programazioa zehazten duten eta ekoizpena bideraturiko laguntzak esleitzen dituzten haien eskuetan ere (askotan, pertsona berak izaten dira).

Dantza-sorkuntzaren eredu horretan, ikusgarritasunak eta merkatuak pisu handiagoa dute, eta kontsumoak eta entretenimenduak agintzen dute. Eta eredu horrek ezkutatu egiten du, askotan, berrikuntza kulturalerako potentzialtasuna, dantzak berezkoa duena, eta eragotzi egiten du, halaber, kulturaren sorkuntzan gorputzaren beste perspektiba batzuk txertatzea.

*“Como si la danza no pudiera tener otra forma que la relación sensual de los cuerpos y no pudiera darse hacia el espacio público, hacia las relaciones sociales, hacia la historia, la educación, los colonialismos, el pensamiento abstracto...” (#3 elkarrizketa) <sup>89</sup>*

Dantzak ezagutza txertatu, kokatu eta erlazional bat sustatzeko gaitasuna du, eta gaitasun hori beste zera honekin lotuta dago: gizarte-harremanen genero-ikuspegia, betiere ezarritako rol, balio eta ekonomiak eta kultura egiteko moldeak aldatzeko aukera gisa ulerturik.

*“Hablo del “género” también desde ahí: frente a tener que hacer un producto que se tiene que vender. Quizás hay que generar otros tipos de contextos realmente horizontales donde el programador no me está juzgando con una lupa y mi relación no sea mercantilista. Género entendido desde “un tener en cuenta” las minorías y otras formas de hacer, de organizarse, de producir.” (#10 elkarrizketa) <sup>90</sup>*

Mediazio kulturala horrela ulerturik: bitartekotzarako, elkarrizketarako, elkartruckerako, topaketarako eta berrikuntzarako esparru bat, non hezkuntzak, komunitateak,

ikaskuntzak, parte-hartzeak eta elkarlanak eta hori guztia jarduketa artistikoekin lotzeak paradigma kultural berri bat dakarren. Eta paradigma berri hori zalantzan jartzen ari da kulturaren paradigma hegemonikoa, hau da, kultura-ekoizpenak ikuskizunaren testuinguruan soilik ulertzen dituen, eta aukera txiki batzuk sortzen ari da profesionalen artean, oraindik ere nagusi den “ekoizpen”- eta “estreinaldi”-eredua alde batera uzten duten jarduketa artistikoak eta harremanak eraikitzeko.

Kasu batzuetan, dantzaren alorreko profesionalak “behartuta” daude pedagogia eta publikoaren sensibilizazioa landuko dituen beste proiektu paralelo bat egitera; hala gertatzen da, adibidez, dantza-konpainiak finkatzeko dirulaguntzetan. Betekizun horrek pertzepzio negatiboa eragiten du, eta beharrezkoa ez den polemika bat eragiten du artearen balioaren eta mediazio kulturalaren artean.

*“Si detecto que las subvenciones que han obligado a hacer mediación como un requisito para ser creador hace un flaco favor a darle valor a la mediación e involucrar a otros agentes” (#8 elkarrizketa) <sup>91</sup>*

*“Creo que el camino está por hacer y mi impresión es que vamos tarde. Tengo la impresión que en otras artes está asimilado el interés y potencialidad para generar procesos de mediación y educativos que se salgan de “crear una pieza”, “aprender a bailar” o “ser público” y que hay cierto miedo a que estos otros procesos (de mediación y educativos) alteren y modifiquen la perspectivas y los sentidos del valor del arte.” (#8 elkarrizketa) <sup>92</sup>*

## HOBKUNTZARAKO PROPOSAMENA

Hurrengo lerroetan, dantzaren alorreko sorkuntzaren balio-katean genero-ikuspegia txertatzea xede duten ekintza batzuk proposatuko ditugu, aintzat harturik txosten honetan jasotako

89 “Dantzak beste molde batekoa izateko gaitasunik izango ez balu bezala, gorputzen arteko harreman sentsuala ez besterik, eta beste eremu batzuetara zabaltzeko gaitasunik izango ez balu bezala, eremu publikora, gizarte-harremanetara, historiara, hezkuntzara, kolonialismoetara, pentsamendu abstraktura...”

90 “Hortik ere hitz egiten dut ‘genero’az: saldu beharreko produktu bat egin beharrean, beharbada egiazki horizontalak diren beste testuinguru batzuk sortu behar dira, non programatzaileak ez nauen lupaz epaitzen eta non nire harremana ez den merkantilista. Generoa horrela ulerturik: gutxiengoak ere kontuan hartu behar direla, eta kontuan hartu behar direla, era berean, egiteko, antolatzekeko ekoizteko beste molde batzuk.”

91 “Ohartzen naiz, sortzaile izateko baldintza gisa, bitartekaritzara behartu duten diru-laguntzek, mesede eskasa egiten dutela bitartekaritzari balioa ematean eta beste eragile batzuk tartean sartzean.”

92 “Uste dut bidea egiteko dagoela oraindik, eta inpresioa dut berandu gabiltzala. Inpresioa dut beste arte batzuetan onartuta dagoela mediazio- eta hezkuntza-prozesuek sormenerako duten interes eta potentzialtasuna, ez direnak ‘pieza bat sortzea’, ‘dantzan ikastea’ edo ‘publikoa izatea’, eta nolabaiteko beldurra dagoela beste prozesu horiek (mediazioaren eta hezkuntzaren esparrukoak) ez oten dituzten aldatuko artearen balioaren perspektibak eta esanahiak.”

datu, hausnarketa eta iritziak. Helburua da txikitzea EAEn dantzaren alorrean emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak.

### Genero-ikuspegia dantzaren alorreko prestakuntzan (1):

Dantzertik eskaintzen duen goi-mailako tituluaren curriculum akademikoan<sup>93</sup> jasotako ikasgaien deskribapenean ez da ageri genero-ikuspeirik (esate batera, dantzaren historian eta dantzaren koreografia/dramaturgian).

**Proposamena:** Dantzertik eskaintzen duen goi-mailako tituluaren curriculumean jasotako ikasgaietan genero-ikuspegia txertatzeko behar diren baliabideak jartzea.

### Genero-ikuspegia dantzaren alorreko prestakuntzan (2):

Dantzertik eskaintzen duen goi-mailako tituluan<sup>94</sup> diharduten irakasleen prestakuntza-gaitasunak ez daude fitxa edo profil batean xeheki jasota, eta, beraz, ez dakigu zer prestakuntza-maila duten genero-ikuspegiari dagokionez arte garaikidearen eta, zehazki, arte eszenikoen alorrean.

**Proposamena:** Irakasleen prestakuntza-gaitasun xehea ikusgai jartzea eta, hala behar duenean, Dantzertiko irakasleen prestakuntza sustatzea, genero-ikuspegia txertatzeko arte garaikidearen eta, zehazki, arte eszenikoen alorrean.

### Dantzaren alorreko sorkuntzan diharduten eta guraso diren profesionali zuzendutako laguntzak kontziliaziorako:

Sorkuntza-prozesu batean murgilduta dagoen profesional batentzat oso zaila da familia-bizitza eta lana uztartzea (esate batera, erresidentzia artistikoetan egiten diren egonaldietan eta lan-mugikortasun handiaren ondoriozko egoeretan).

**Proposamena:** Dantzari zuzendutako dirulaguntzetan familia-bizitza eta bizitza profesionala uztartzeko laguntzak txertatzea, dantzaren sorkuntzan diharduten eta guraso diren profesionali zuzenduak.

### Dantzaren alorreko lantaldeak, eta ordezkariak orekatua dantzaren alorreko sorkuntza-taldearen rol profesionalean (1):

Dantzaren alorreko sorkuntza-taldeetan, badira rol profesional batzuk non emakumeen eta gizonen presentzia nabarmenki desorekatua den (adibidez, argiztapenean, soinuan eta banaketan). Era berean, dantzaren alorreko profesionalak ez dute sorkuntza-talde bateko rol desberdinetan parte hartzeko prest dauden emakume eta gizon profesionalen berri.

**Proposamena:** Profesionalen erregistro edo datu-banku bat sortzea, genero-ikuspegia aintzat hartuta, non ezagutaraziko baitira dantza-sorkuntzaren esparru desberdinetan diharduten emakumezko eta gizezko profesionalak. Erregistro edo datu-banku hori profesionalen eskura egongo litzateke, EAEn dantza sustatzeko dauden plataforma desberdinetan (esate batera, ADDE elkarte, Dantzagunea...).

### Dantzaren alorreko lantaldeak, eta ordezkariak orekatua dantzaren alorreko sorkuntza-taldearen rol profesionalean (2):

**Proposamena:** Dantza-ekoizpena zuzendutako dirulaguntzetan, "emakumearen presentzia" izeneko balorazio-irizpidea berrikustea, eta rol profesionalen arabera puntuazio bereizi bat ezartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko duena.

### Genero-ikuspegia EAEko antzokietako programazioan (1):

EAEko antzoki publikoetako programatzaileen prestakuntza-gaitasuna<sup>95</sup> ez dago fitxa edo profil batean xeheki jasota, eta, beraz, ez dakigu zer prestakuntza- eta sentsibilizazio-maila duten genero-ikuspegiari dagokionez arte garaikidearen eta, zehazki, arte eszenikoen alorrean.

**Proposamena:** Programatzaileen prestakuntza-gaitasun xehea ikusgai jartzea. Prestakuntza kritikoa sustatzea genero-ikuspegiari dagokionez arte garaikidearen eta, zehazki, arte eszenikoen alorrean.

### Genero-ikuspegia EAEko antzokietako programazioan (2):

93 <http://www.dantzerti.eus/especialidades/titulo-superior-de-danza>

94 <http://www.dantzerti.eus/dantzerti-2/profesorado?f=dantzarria>

95 "Durante la última década (entre 1998 y 2007) han iniciado su actividad un tercio de ellos (34,2 %), mientras que un 43 % lo hicieron la década anterior (entre 1987 y 1997) y un 22,8 % tienen una antigüedad de más de veinte años" in Estadística Programadores de artes escénicas en Colección de Estadísticas y Estudios Culturales del Observatorio Vasco de la Cultura 2010.

Sarea antzoki-sareak, Batzorde Artistiko baten bidez, “Obra gomendatuen katalogoa”<sup>96</sup> eskaintzen du. Katalogo hori egiteko, zenbait irizpide hartzen dira kontuan, hala nola kalitatea, interesa, dibertsitatea, gaurkotasuna eta oreka; gainera, ikuskizun gomendatuari buruzko iruzkin baloratibo bat ere eskaintzen da. Bada, hautaketa-irizpideetan eta azterturiko iruzkin baloratiboetan ez dago emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna esplizituki baloratzen edo aipatzen duenik. Beraz, esan dezakegu obrak hautatu/baloratzeko orduan ez dela kontuan hartzen genero-ikuspegia duen irizpiderik.

**Proposamena:** *Balorazio-irizpideetan eta obra eszenikoen hautaketan genero-ikuspegia duten irizpideak txertatzea. Prestakuntza kritikoa sustatzea genero-ikuspegiari dagokionez arte garaikidearen eta, zehazki, arte eszenikoen alorrean.*

### Genero-ikuspegia EAEko antzokietako programazioan (3):

Kontuan harturik ez dagoela ez prestakuntzarik ez antzokietako kultura-edukiak genero-ikuspegiarekin jorratzen dituen irizpide kontrastagarriak, ezinbestekoa da elkarrizketarako, eztabaidarako eta prestakuntzarako espazioak zabaltzea lehenbailehen, dantza-sorkuntzaren balio-kateko eragile guztiak bateratuko dituen.

**Proposamena:** *Kultura-edukiei eta jarduera kuratorialeri (diskurtso estetikoetan espezializaturiko programak) buruzko eztabaida publikoa sustatzea antzokietan, dantzan eta arte eszenikoetan genero-ikuspegi kulturalak eta kulturartekotasuna sustatzeko.*

**Proposamena:** *“Erresidentzian dagoen artista”ren figura sustatzea, bi helbururekin: batetik, artista hori eragile sortzaile eta kritiko bat izan dadin kultura-programazioaren diseinuan; bestetik, mediazio kulturalako programak bultzatzeko beste publiko batzuekin, genero-ikuspegia sustatuko dutenak eta aukera emango dutenak publiko berrietan arreta jartzeko.*

### Genero-ikuspegia EAEko antzokietako programazioan (3):

Gaur egun, Sareak bi publiko-mota bereizten ditu erregistro batean, “gazteak” eta “helduak”<sup>97</sup>, eta erregistro hori ikuskizunak sailkatzeko erabiltzen da, hau da, ikuskizun bat umeei edo helduei zuzendua den zehazteko. Aitzitik, ez dago emakumeen eta gizonen asistentzia bereizirik jasotzen duen erregistrorik.

**Proposamena:** *EAEko antzokietara joaten diren emakumeen eta gizonen kopuruak bereizirik jasotzeko aukera emango duen tiket-sistema bat sortzea.*

### Genero-ikuspegia eta mediazioa hezkuntzarekin loturiko alorrean:

Dantzak, diziplinaren beraren baliotik harago, esploratzeko aukera ematen duten pedagogia erlazional eta sentsibleak garatzeko ezin hobeak diren jakintza-alorren eremu zabal bat hartzen du bere barruan. Adibidez, genero-estereotipo eta identitateak gazteekin.

**Proposamena:** *Mediazio-proiektuak sustatzea artisten eta ikastetxeen artean, ikastetxeetan egindako erresidentzien bidez, genero-estereotipo eta -identitateak esploratzeko gazteekin batera.*

### Dantzaren alorreko ikerketarako laguntzak:

Ekoizpen koreografikoa nabarmen babesten bada ere, EAEn hutsaren hurrengoa da dantzari buruz ekoizten den literatura kritikoa (historiografia; ikerketa eta kritika), baita genero-ikuspegia duen azterketa kritikoa ere.

**Proposamena:** *Dantza ikertzea xede duten diziplina anitzeko taldeen (teoriko-praktikoak) sorkuntza sustatzea eta babestea unibertsitateetan eta koreografia-eskoletan, genero-ikuspegia duen literatura kritikoa sortzeko.*


### Arte Eszenikoei zuzendutako sari instituzional bat EAEn:

Gaur egun ez dago dantza-sorkuntzan diharduten pertsonen lan artistikoa aitortzen duen sari publikorik, ikus-entzunezko arteetan Gure Artea dagoen bezala. Hutsune horrek erakusten du modu desberdinean begiratzen zaiela arteen esparruko genero ugariei, eta, gainera, eragiten du gizartean dantza maila txikiagoko arte gisa ikusten jarraitzea.

**Proposamena:** *Dantzaren eta arte eszenikoen aintzatespen instituzional egonkor bat sortzea, dantzaren alorreko arte-sorkuntzak duen balio sozialari prestigioa eta zabalkundea ekarriko dizkiona eta EAEn berrikuntza soziala sustatuko duena.*

<sup>96</sup> <http://www.sarea.euskadi.eus/aa95-sobre/es>

<sup>97</sup> [http://www.sarea.euskadi.eus/noticia/2019013010013769/sarea-informe-estadistico-2017/kulturklik/es/aa95-detallep/es/adjuntos/SAREA\\_Informe\\_Estadistico\\_2017.pdf](http://www.sarea.euskadi.eus/noticia/2019013010013769/sarea-informe-estadistico-2017/kulturklik/es/aa95-detallep/es/adjuntos/SAREA_Informe_Estadistico_2017.pdf)



# 6. ELKARRIZKETA KUALITATIBOEI BURUZKO DATU OROKORRAK



## 6. ELKARRIZKETA KUALITATIBOEI BURUZKO DATU OROKORRAK

### Populazioa:

Dantzaren alorreko profesionalak, guztiak ere estatus profesional bat dutenak eta EAEn bizi direnak.

Dantzaren alorreko “profesional” esatean, kontuan hartzen ditugu ezaugarri hauek guztiak edo batzuk dituzten pertsonak: dantzaren alorreko prestakuntza arautua izatea, irakaskuntzan jardutea, adierazpenezko jarduera bat egitea, sariak jasotzea, akademia edo elkarte artistikoetako kide izatea, sorkuntzarako dirulaguntza publikoak jasotzea, eta aintzatespena jasotzea esparru akademikotik eta kritikotik, baita komisariotzaren eta/edo antzoki eta kultura-etxeetako programazio artistikoaren aldetik ere.

### Elkarrizketaturiko pertsona-kopurua: 13

10 emakume (% 77) eta 3 gizon (% 23).

### Elkarrizketatuen profila:

- Emakumeak eta gizonak
- Koreografiatik eta/ala zuzendaritza artistikoaren esparrutik dantzaren alorreko sorkuntza-proiektuak garatzen dituzten profesionalak
- Dantzaren eta haren testuinguruen (bitartekaritza artistikoa, kulturaren kudeaketa) alorretako ekoizpena bideraturiko proiektu kulturalak zuzentzen dituztenak, edo zuzendaritza partekatu batean parte hartzen dutenak
- Zirkuitu profesionalean edo dantzaren alorreko profesionalen elkarteetan dihardutenak

### Elkarrizketen iraupena:

60-90 minutu bitartean pertsona bakoitzarekin

### Elkarrizketak egiteko metodoa:

Elkarrizketak solasaldi ireki gisa planteatu dira.

Lehenik eta behin, dantza-sorkuntzaren balio-katearen gune kritikoen kontzeptu-mapa egin dugu. Gero, emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak dauden esparruei buruzko hausnarketa bat egiteko gonbita egin zaie elkarrizketatuei.

### Kontzeptu-mapa / elkarrizketa:

Finantziak / Laguntzak <i>Financiación / ayudas</i>	Kolaborazioak (interpreteak/ teknikoak/ bestelakoak) <i>Colaboraciones (interpretaciones / otros)</i>
Erakusketa / Zabalkuntza <i>Exhibición / Difusión</i>	Ikerkuntza - Sorkuntza <i>Investigación - Creación</i>
Produktzioa <i>Producción</i>	Programazioa / Merkaturia <i>Programación / Mercado</i>
Teatroak/ Instituzio kulturalak <i>Teatros / Instituciones culturales</i>	Sentsibilizazioa / Mediazioa <i>Sensibilización/ Mediación</i>
Hezkuntza / Formakuntza / Transmisioa <i>Educación/ Formación / Transmisión</i>	Historia / Artxiboa / Dokumentazioa <i>Historia / Archivo / Documentación</i>
Kritika / Sariak <i>Crítica/Premios</i>	Politika Kulturalak <i>Políticas culturales</i>
Kudeaketa Kulturala <i>Gestión Cultural</i>	Generoak dantzan <i>Géneros en danza</i>
Ideazioa/ kontzeptualizazioa <i>Ideación/ Conceptualización</i>	

Elkarrizketa-zenbakia	Sexoa-generoa	Lan-esparrua/esperientzia	Lurraldea
#1 elkarrizketa	Emakumea	Koreografia; Zuzendaritza artistikoa; Interpretazioa; Kulturaren kudeaketa	Bizkaia
#2 elkarrizketa	Gizona	Koreografia; Zuzendaritza artistikoa; Interpretazioa	Bizkaia
#3 elkarrizketa	Emakumea	Koreografia; Zuzendaritza artistikoa; Interpretazioa; Kulturaren kudeaketa	Araba
#4 elkarrizketa	Emakumea	Koreografia; Zuzendaritza artistikoa; Kulturaren kudeaketa	Bizkaia
#5 elkarrizketa	Gizona	Koreografia; Zuzendaritza artistikoa; Interpretazioa; Kulturaren kudeaketa	Gipuzkoa
#6 elkarrizketa	Emakumea	Koreografia; Zuzendaritza artistikoa; Interpretazioa; Kulturaren kudeaketa	Araba
#7 elkarrizketa	Emakumea	Zuzendaritza artistikoa; Artea-hezkuntza bitartekaritza; Interpretazioa; Kulturaren kudeaketa	Gipuzkoa
#8 elkarrizketa	Emakumea	Koreografia; Zuzendaritza artistikoa; Interpretazioa; Kulturaren kudeaketa	Gipuzkoa
#9 elkarrizketa	Emakumea	Koreografia; Zuzendaritza artistikoa; Interpretazioa; Kulturaren kudeaketa	Gipuzkoa
#10 elkarrizketa	Emakumea	Koreografia; Zuzendaritza artistikoa; Interpretazioa; Kulturaren kudeaketa	Bizkaia
#11 elkarrizketa	Emakumea	Koreografia; Zuzendaritza artistikoa; Interpretazioa; Kulturaren kudeaketa	Bizkaia
#12 elkarrizketa	Gizona	Zuzendaritza artistikoa; Interpretazioa	Bizkaia
#13 elkarrizketa	Emakumea	Zuzendaritza artistikoa; Interpretazioa	Bizkaia



# KULTURA AUZOLANEAN

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

